

# Gorriak Ikusi.

## Arabako Gerra Zibila eta eguneroko bizitza 1936an

ARITZA SAENZ DEL CASTILLO VELASCO

**RESUMEN**  
**LABURPENA**  
**ABSTRACT**

A los pocos días del alzamiento del 17 de julio de 1936, las posiciones republicanas y nacionales quedaron definidas. Las provincias de Euskal Herria quedaron divididas, por una parte, con Navarra y Álava bajo control de los nacionales, y, por otra, con Gipuzkoa y Bizkaia en manos republicanas. Tras la caída del frente guipuzcoano, el escenario bélico se centró en Álava. En las siguientes líneas, realizaremos un seguimiento de los alaveses que en el año 1936 combatieron por el ejército nacional en Madrid y Álava, analizando también la organización y la colaboración de la retaguardia alaveses.

*1936ko uztailaren 17an altxamendua eman eta egun gutxira, errepublikar eta nazional posizioak definituak gelditu ziren. Euskal Herriko probintziak erdibituak gelditu ziren, Nafarroa eta Araba nazionalen kontrolpean, eta Bizkaia eta Gipuzkoa errepublikarren eskuetan gelditu zirelarik. Gipuzkoako frentea erortzean, gerraren eszenatokia Arabako probintzian zentratu zen. Hurrengo lerroetan 1936 urtean ejertzito nazionalaren alde Madrild eta Arabako frentean borrokatu zuten arabarren jarraipena, eta Arabako erretagoardiaren antolamendua eta lankidetzaz aztertuko dugu.*

Only a few days after the rising on 17th July 1936, the Republican and Nationalist positions were defined. The Basque Country provinces were divided with Navarre and Alava on one side under Nationalist control and on the other side Gipuzkoa and Bizkaia were in Republican hands. After the fall of the Gipuzkoa front, the fighting centred on Álava. In the following text, we will follow up the fate of people from Alava who fought for the Nationalist side in Madrid and Alava in 1936, also analysing the Alava rearguard organisation and collaboration.

**PALABRAS CLAVE**  
**HITZ KLABEAK**  
**KEY WORDS**

Guerra civil de 1936, Álava, Villarreal, Frentes, Retaguardia.

*Gerra zibila 1936, Araba, Legutiano, Frentean, Erretagoardia.*

Civil war in 1936, Álava, Villarreal, Fronts, Rearguard.

Arabako gerra zibilaren ikerketa lana P.A.-eko (Pensamiento Alavés) berrietan oinarritu dugu, altxamendua gauzatu eta 1936ko abenduaren amaierarteko epea aztertu dugularik. Eguneroko jarraipena egin dugu, gerra egoerako berri adierazgarrienak aukeratu ditugularik. Historia politikoa, ekonomikoa edo instituzionala garatu beharrean, historia herrikoa aztertzea erabaki dugu, Espainako Gerra Zibilaren historiografian eta Arabako azterketetan bereziki, bere gabezia aurkitu baitugu.

Egunkariko berrien egitasuna frogatzeko, informazioa osatzeko eta jendearen bizi esperientziak jasotzeko, hainbat elkarrizketa burutu ditugu. Hasiera batean, inguru hurbilean ezagutzen nituen lekukoak elkarrizketatu nituen; geroago, Gasteizko auzo ezberdinen agureen egoitzan eta “Las Cuatro Torres” agure elkarteetan, garai haiek bizi izan zutenen pertsonen bila aritu nintzen. Denetarik aurkitu genuen, baina orokorrean lagungarriak izan ziren, garatzen ari ginen lanari harrera ona eta arreta jarri baitzioten, nahiz eta garai bateko beldurra eta mesfidantza somatu nuen pare bat kasutan.

2004eko abenduak 5eko El Correo-ko arabar sailean, F. Gongorak gerra zibileko erreportaia egin zuen, hainbat lekuko elkarrizketatu zituelarik. Berarekin kontaktuan jarri, gure lanaren helburua azaldu, eta handik egun gutxira, helbide eta telefono batzuk eskeini zizkidan, egin genituen elkarrizketak osatzeko aukera izan nuelarik, aldezturik aurretik lankidetzaz eskertu nahi diodalarik.

Lana erdi osatuta genuenean, Arabako gerra zibilari buruz dokumentu berriak eskuratzeko aukera izan genuen, Norberto Ibáñez, penintsulako artxibo ezberdinetako azterketa eta filtrazioa burutu ostean, arabar errepresaliatuen dokumentuak bildu zituelarik. Bertan, gure azterketan jaso ditugun hainbat pertsona aurkitu ditugu, baina denboraren premiak direla eta, lan honetan garatzea ezinezkoa izan zaigu.

Bukatzeko, hasiera batean garatu behar genituen esparru batzuk, aurkeztu dugun lanetik kanpo utzi ditugu (emakumeak, moralitatea...) bere lanketa sakonagoa baita.

Lan hau posible egin duten pertsonak eskertzea nahi genuke, nahiz eta bere izenak ez agertu, expreski bere pribazitatea gorde nahi baitzuten, beraien aportapenak oinarrizkoak izan batira lan honen garapenerako.

2006an Gerra Zibilaren 70. urtemugan aurkitzen gara, gai honi buruz hainbat eta hainbat ale edo bilduma orokor argitaratu direlarik. Gure ikerketa ildo berean doa, baina Arabako populazioak jasandako

## 1. METODOLOGIA

## 2. SARRERA

gorabeheretan oinarritzen da, era deskriptibo eta analitiko batean azalduz. 1936ko uztailaren 17tik, urtea amaierarte doan epea aztertu dugu, ejerzito nazionalaren pean gelditu zen Arabako lurraldea estutazun, larrialdi eta zalantza egoera etengabean bizi izandako garaia izan baitzen (1). Gerra guztiak bi esparru soziologiko berezitueta bana daitezke, frentea eta erretaguardia, lanak bi atal nagusi hauek aztertu dituelarik, bien arteko koordinaketa eta lankidetzaz azpimarratuz.

Lehenengo atalean ejerzito nazionalaren alde borrokatu zuten arbarren kronika garatu dugu, frente ezberdinetan izandako eragina aztertuz. Saikapen honen barnean, Araban antolatutako osasun azpiegiturak deskribatu ditugu, probintziako frenteez jasan zuten intentsitatearen adierazle izanik. Azpisaikapen honetan, Gurutze Gorria erakundearen lana ikertu dugu, osasun antolaketaren oinarrietako bat izan baitzen.

Lanaren bigarren atalean erretagardiaren erakundetze prozesua, mobilizazioa eta frente ezberdinetara zuzenduriko lankidetzaz aztertu dugu.

### 3. GERRAKO FRENTEN GARAPENA

Hasi baino lehen esan behar da, operazio militarrek azaltzerako orduan, Pensamiento Alavés (P.A.) orrialdetan aurkitu dugun informazioan oinarritu garelara, baina mementu batetik aurrera bere argitalpena mugatua bihurtu zen, aipamen eskasak aurkituz, egindako elkarrizketekin osatu dugularik.

1936ko uztailaren 18tik 23rarte, P.A.-en ez dugu informaziorik (2). Egun nahasi hauean, Comución Tradicionalista, Falange Española (F.E.), Acción Popular eta Renovación Española alderdiek altxamenduari atxikimendua erakutsi zioten, bere milizia bolondresak ejerzitoaren zerbitzutara jarritz, Pedro Alonso militarra Gasteizko milizien buruzagian bilakatu zelarik. Milizia bakoitzak, janzkeran bereizgarria zen objektu bat eramaten zuen: falangekoak alkandora urdina zerama-

(1) Legutio gaineko eraso errepublikarra pasa eta gero, ejerzito nazionala Bizkaiko frentean nagusitzen hasi zen, su lerroa Araba eta Gasteiztik hurrunduz.

(2) 1960ko uztailak 23ko P.A. egunkariak, altxamenduaren lehen egunei buruz kronika bat dakar. 1936ko uztailaren 14an Arabako Biltzar Tradizionalista eta reketek bildu ziren konspirazioaren azken informazioak jasotzeko, hilaren 17an Afrikan egingo zen lehen saiakeraren berri egonez. Arabako reketen buruak, uztailaren 18an Molaren agindua betearaziz, bere miliziak altxa zituen. Gau horretan, Rabaneraren agindutara arabar errioxa eta mendiko herri gehienek mugimenduaren alde egin zuten, erresistentziako hainbat gune zapaldu ostean, 19an Gasteizerantz abiatuz. Hiriburuan zegoen tentsioa zela eta, Alonso Vega Arabako Gerra Biltzar Karlistaren komisarioarekin bildu zen (Jose Luis Oriol), altxamenduari batuz eta gerra egoeraren aitorpena eginez. Nazional mugimenduari atxikimendua baiezatzeko, Iruñeara deitu eta Mtz. de Berasaini (Nafarroako Gerra Biltzar Karlistaren bozeralea eta Banco Hispanoamericano-ren zuzendaria) hurrengo hitz klabeak zuzendu zizkion: "... Se acepta la letra en las condiciones convenidas...". Gasteizko garnizioa mugimenduaren alde jarritz.

ten, rekeak txapelgorriak, Renovación Españolakoak txapel berdea eta Santiagoko gurutzea eta azkenik, Acción Popularreko bolondresak mono urdina eta kobadongako gurutzea zeramaten soinean.

Hasierako testuinguru honetan, honelako mesuak aurkitu ditzakegu P.A.-eko orrietan, beligerantziaren aldeko jarrera bultzatuz: ... Matar al hombre para salvar al pueblo es humanidad, pero perder al pueblo por salvar al hombre es alto crimen...(uzt 31), G. de Albeniz sinatuta. Gasteizen zeuden indar militarrek honako hauek ziren: Flandeseko Mendi Batailoia (nº5), Numancia Zalditeri Erregimendua (nº6), Mendiko Artilleria Erregimendua (nº2), guardia zibila eta asaltoko guardiak. Lehenengo egun huetan probintzia gaineko kontrola zihurtatzeko, arma pribatuak agente publiko edo guardia zibilaren esku utzi behar izan ziren, gizabanakoaren jarrera aztertu eta gero, bere erabilpena legeztatu eta armak itzuliak izanez.

Aztertu behar dugun epean, mugimendu nazionalaren aldeko arabarrak Madril, Gipuzkoa eta Bizkaiko fronteetan aritu ziren, milizietan edo ejerzitoaren gorpu ezberdinen barnean. Hurrengoko lerroetan, Arabako eta Madrileko fronteetan egindako aportapena aztertuko dugu.

Arabako frontea Arlabaneko gainatik Orduñaraino zabaltzen zen, frontearen zehar Legutio, Gorbeialdea (Gasteizko ur iturriak zaindu), Murgia eta Puentelearrako gune garrantzitsu eta estrategikoekin aurkituz, tropak bertan ezarri zirelarik. Gune hauek sarritan probintziako autoritateek bisitatzen zituzten, tabako eta alkohol eskeintzak eramanez. Abuztuak 27tik aurrera, Puentelearra, Ozaeta, Ullivarri- Ganboa, Murgia eta Arayako ( Irigoyen agindutara) erretaguardia posizioan, ejerzito nazionalaren oinarri bihurtu ziren, herri hauetan indar nazionalak osatzen eta babesten baitziren. Arabar fronteetako ekintzak azaltzerako orduan, bi zonalde kontutan izango ditugu: Legutio eta Arlaban inguruko su lerroak alde batetik, eta Orduña, Izarra eta Murgiako fronteak bestaldetik.

Uztailaren 23an, Otxandio ingurutan eman ziren borroken berri informazioa aurkitzen dugu, Legutio errepublikarren eskuetan egon baitzen, nazionalak 22an barneratu arte; geroago, Otxandio aldean, Camilo Alonso Vegaren agindutara behaketa lanak egin ziren, nazionalak erretaguardia errepublikarra bonbardatu eta uztailaren 26an Otxandio gaineko eraso bat burutu zutelarik; eraso honek ez zuen eragin askorik izan, Otxandio bidean zeuden Legutioko menditxo estrategikoetan behaketa lanak jarraitu baitzuten. Abuztuaren 5an aktibitate somatu zen, errepublikarrek Otxandio eta Ubideako errepideetatik gerturatzeko saiakera egin baitzuten. Abuztuak 6ko P.A.-ean, lehenengo egun hauetan Legutio aldean egondako reketen indarren zerrenda agertzen da, Francisco Martín eta Germán Bastida agindutara zeudenak.

### 3.1 Arabako frontea

Legutio herri estrategikoan bilakatu zen, legioa bertaratu zelarik, bertako udaletxea behin behineko kuartelean bihurtuz; inguruan aktibitatea zabaldu zen, Camilo Alonso Vegak gidatutako kolumna motorizatuak Arlabanen operazioak egin baitzituzten. Abuztuaren 27an Ubidea inguruan errepublikarren aktibitatea somatu zen.

Irailaren 21ean Gasteizko kolumnek Arlabaneko gainan operazioak burutu zituzten, Arrasateko okupazioari buruz zurrumurruak zabaldu zirelarik; ekintza hauen ondorioz, 22an Arlaban eta Lenitz-Gatzagako (Salinaz de Leniz) gainak okupatu ziren, tropak Eskoriatxa eta Aretxabaletako bidean jarri zirelarik (3), Deba ibaiko goikaldea kontrolpean edukiz; bestalde, kostaldean aritu ziren tropa nazionalak Bergararantz abiatu ziren, errepublikarrak bi suren artean harrapatuak geldituz. Irailaren 24an nazionalak Aretxabaleta okupatu zuten, operazioan hegazkinek parte hartu zutelarik (4). Flandes mendi batailoiak 6 hildako jasan zituen. Ekintza honetan Gasteizko Asaltoko guardiak Espina eta Candelas tenienteen agindutara aritu ziren. Behin su larroa aurreratuta, Eskoriatxan, Telesforo Monzonen etxe ohian, odol-ospitalea antolatu zen Primitivo Orue agindutara. Militarrek Aretxabaletako alkatetzan Eustaquio Alkorta ezarri zuten.

Irailaren 26an Arrasateko okupazioari buruzko zurrumurruak egia bilakatu ziren. Ejerzito nazionalaren bultzadaren aurrean, populazioak aldegin zuen, Arrasate hutzik geldituz (5); hurrengo egunetan honen islada aurkitu genezakeen P.A.-eko iragarkietan, Unión Cerrajerak langilegoa biltzeko arazoak izango baitzituen, aldeindakoen itzulera eskatuz. Nazional frontea aurreratzen joan zen, bi egunetan Udalaitzeko pozisioak eskuratu zituztelarik, Anguiozar herrian (Bergarako mendebaldean) frontea eta lubakiak egonkortuz, errepublikarrek Intxortas mendian artilleria eta erresistentzia gogorra ezarri baitzuten (6). Honi aurre egiteko, Gasteizko Mendi Artilleriako (nº2) erregimendua Anguiozarren (7) ezarri zen. Tropak inguruko baserrietan ezarri ziren baserriarrek batera, eta egunero mendi maldetan gora ibiltzen ziren posizio aurreratueta iristeko. Etsaiaren lubakiak oso gertu zeuden, behin baino gehiagotan solasaldiak eman zirelarik, herri bateko kideak aurrez aurre aurkituz.

Aurrerapen hau finkatzeko eta eskualdeko errepideen kontrolaz jabetzeko, urriaren 8an Arlaban mendi gain ingurutan nazionalak operazioak burutu zituzten, artilleriako eztandak eta infanteriako erasoak

(3) Flandes Mendi Batailoa okupazio hauen buruan bihurtu zen, erretaguardia indar auxiliari edo bolondresei utziz.

(4) 2 hegazkin errepublikar Kanpazar inguruan txikituak izan ziren.

(5) Denak ez zuten aldegin, Gaceta del Norte zuzendari jeltzaleari Arrasateko okupaziotik ihes egitea ezinezko bihurtu baitzitzaion, Santa Agedako zoroetxeko kideen artean iskuratu zelarik; bitxikeria V.V.en elkarrizketatik aterata.

(6) Bertan rekete arabatarren 8. Konpainia eta Flandeseko Mendi Batailoa aritu ziren, F.B.en esanetan.

(7) Gorpu honen barnean F.U. parte hartu zuen bere testigantza jaso dugularik.

gauzatu zirelarik, errepublikarrak erresistentzia bortitza ezarri eta erasora atera baitziren (8); borroka hauetan Arabako reketeen 9. eta 11. konpainiek parte hartu zuten eta 12 arineko artilerako Urbinan ezarri ziren errepublikarren eraso mozteko, hainbat hildako eduki zituztelarik (9). Eztanda hauek Gasteizen entzun ziren, gerra inguruko solaskeriak eta zurrumurrak zabalduaraziz, autoritateen mehatsuak aragotuz. Errepublikarrek Arrasate inguruko errepede eta trenbidearen kontrola lortu zuten, Anguiozar eta Gasteizko guarnizioen arteko komunikazioa moztuz. Gasteizen zeuden guarnizioak frente honetara bidaliak izan ziren, Alvarez Arenas gobernadore militar berriak operazioak gidatu zituelarik. Urriaren 19an, nazionalak Ullibarrin kontzentratu eta kolumnatan zatitu ziren aurrerakadari ekiteko. Operazioan Isuskiza mendia okupatu zuten borroka latza baten ostean (10), hildako asko egonez (11), errepublikarrak ondo parapetatuak baitzeuden lubakietan; azken hauek Jarindo mendian erreplegatu ziren. Arrasate zihuan errepedea eta trenbidea despejatu zuten, Landako tren-geltokian edo “tejerian” eta Leintz-Gatzagan kuartelak ezarriz (12). Okupatutako posizio estrategikoen defentsaz, Bailen infanteriako erregimendua arduratu zen. Errepublikarren erasoan lekuko, Juan Cruz Baroja miñoi-guardak Albertia mendian zuen etxepustoa izan zen, txikitua gelditu baitzen. Errepidearen mendebaldera zeuden gain guztiak errepublikarren kontrolpean zeuden, Leintz-Gatzagatik hurbil zegoen Marin herrian lo egiten zutelarik, eremuan eragin nabarmena edukiz.

Urriaren azken astean, tropak Legutiora bidaliak izan ziren, errepublikarren gertutasunagaitik. Elizako dorretik iparrera, nazionalen posizio aurreratuak zueden eta gertu, errepublikarrak aurkitzen ziren, herria erdi inguratua edukiz. Arabar reketeen 5. konpainia eta Flandes Batailoieko hainbat talde bertaratu ziren.

Legutioko posizioa defendagaitza bilakatuko balitz, nazional tropak errepublikarren aurreratzea mozteko, Gojain eta Urbinako gainetan indartsu bilakatu ziren, Elosurako bidea kontrolpean edukiz, bertan aurreko egunetan hainbat borroka eman zirelarik. Urbinan kuartel generala ezarri zuten, herri sarreran zaintza lanak antolatuz. Hemendik, tropak Santa Lucia ermitara (Gojain) abiatzen ziren, bigilantzia eta erresistentziako frentea antolatzeko zerbitzuak (parapetoak

(8) Operazio hauetan Fernando Oriol, Jose Luis Oriolen Urigüen semea, zauritua izan zen.

(9) Eibarko margaritek ekintza hauek gogorazteko Landako iturrian inskripzio bat ezarri zuten, honako hau izanik: “Reuerdo de la 11°C° del Requete Alaves. Las Margaritas-Requetes de Eibar (Guipuzcoa) 8 Oct 1936”. Gaur arte mantendu da; Ikusi eranskina.

(10) Karlitek borroka honen oroitzapena gorde zuten, hurrengoko urteetan Isuskizan Via Crucis-a antolatuz

(11) Urriak 21an Gasteizen, Arlaban frentean eroritakoen homenez, hiletak ospatu ziren.

(12) Egun hauetan, Leintz-Gatzagan, Uñibaso kapitainaren ardurapean Begoñako Ama Birginaren rekete tertzioa osatu zen, bere kideen artean O Ferrail soldadu irlandarra aurkitu dugularik.

egikitu, lubakiak ireki...) aurrera eramanez. Flandeseko Batailoiaren 7. konpainia defentsa lan hauetan nabarmendu zen. Operazio hauek bere emaitza lortu zuten urriaren 26an, Cestafe eta Elosu herriak okupatuak izan zirenean, Gorbeialdeko frontea Legutiokoarekin elkartu baitzuten, errepublikarren aurreratze lerro posiblea itxiz eta hauen posizioak Ubidearantz atzeratuz. Komandante Moralesen agindutara kolumna bat Eribetik atera zen Elosurantz, eta bertan errepublikar erresistentziarekin topatu ziren, borroka latzen ostean (bertako eliza ondaratua izan) okupatu zutelarik. Beste kolumna bat Gopegitik (13) atera eta Cestafe inguratzea lortu zuen. Operazio hauetan, Bailen infanteria erregimendua, artilleria arina eta mendikoa, J.A.P.eko miliziak, reketeak, Albiñistak, Numancia eta España erregimenduetako zalditeria parte hartu zuten, gerora bertan asentatu zirelarik. Erretagoardia indartzeko eta larrietarako osasun zerbitzuak eskeintzeko, azaroaren azken astean Lukon ospitale militarra eratu zen, bertan ejerzitoko tropak ezarriz.

Uztailaren 29an Camilo Alonso Vegak gidatuta, kolumna motorizatu bat Murgiarantz atera zen, Orduña eta Amurrioko frontea ikuskatzeko helburuarekin; Orduñan, behaketa lan hauek abuztuaren 4an errepikatu ziren, arabar reketeen 4. konpainia (Lucas Oriol agindutara) parte hartuz; espedizioa Unzaraino iritsi eta bertan, infateriako tropak rekete miliziekin elkartu ziren; hauekin batera, Puentelarratik 15 guardia zibil Amurrio jaunaren agindupean, eta 110 rekete Solis eta Calvo jaunaren agindutara, Orduñarantz atera ziren, Gasteiztik zetozen indarrekin Tertanga herrian elkartuz eta bertan indar errepublikarrekin talka eginez. Orduñako aduana etxean eta hilerrian errepublikar erresistentziarekin ere topatu ziren, nazionalak atzera eginez, ekintzan hainbat errepublikar gatibu hartuz. Orduñako arkaitza nazionalen esku gelditu zen, bertan kañoi bat ezarri zutelarik eta Picachos de Santiago eta Salvada mendi-serran zehar parapetoak zabaldu zituzten; irailaren 28an jada, Charlazoko puntan bandera bikoloreduna ezarri zen. Orduñako gainan aritzen ziren ejerzito nazionalaren tropa batzuk Espejon deskantzatzen zuten; falangekoak, Argüelles jaunaren agindutara, Berberanan ezarri ziren.

Abuztuaren 4an, fronte honetako zaurituak zaintzeko, harpidetza bat ireki zen Izarran odol-ospitale bat antolatzeko intentsioarekin; azkenean, ospitalea Jose Luis Oriolek Arguiza-ko? herrian zeukan etxean ezarri zen, Felipe Elizagarate medikuaren zuzendaritzapean.

Irailaren 22an, Mestre kapitainaren agindutara Unzan destakaturik zegoen arabar reketeen 7. konpainiak, Uzkianoko posizioak berreskuratu zituen, aurreko egunetan errepublikar eraso baten ondorioz posizio garrantzitsu hauek galduak izan baitziren. Errepublikarrak ondo

(13) Gopegi udaletxeko egoitza guztiak tropa nazionalak jasotzeko egokitu ziren, 1937ko martxoak arte egon zirelarik.

parapetatuak zeuden, lubaki eta bunker egitura sendoak eraiki baitzituzten (14), nazionaleri aurreratzea ezinezko eta oso neketsu bihurtu zitzaielarik (15), frentea estankatua geldituz. Azaroaren 17an, P.A.-ek han ezarritako reketen kanta bat jaso zuen, honako hau izanik: “...Que día tan desgraciado, para los pobres rojillos, que a Aribarte subieron, y con el Moco se encontraron, y a este quiero a este no quiero, hasta Amurrio los bajaron...”

Irailaren 4an, Murgiako destakamenduko infanteria eta arabar reke-teen 4. konpainiak, Jesus Ortégaren agindupean, Gorbeia mendian behaketa lanak egin zituzten errepublikarrei 1698 abelburu lapurtuz. Gerora, hilaren 11an, Muruan akantonatu eta bertako basozainaren gida lanetaz baliatu ziren ekintza estrategikoak aurrera eramateko. Posizio hauetan, urriaren hasieran, hotzaren presentzia somagarria egin zen, jertse eta kapoteen eskakizuna behin baino gehiagotan P.A.-eko orrialdetan aurkitu baitugu.

Urriaren erdialdean Arabako frentea “berotzen” hasi zen, errepubli- karrek bere ekintzak eta erasoak ugaritu baitzituzten, Gasteizko guar- nizio eta tropei laguntzeko beste gorpu militar batzuk etorriaraziz. Burgoseko Acción Popularreko gazte bolondresen (J.A.P.) 12 eskua- droi etorri ziren, guztira 125 kide izanik, Gasteizko kaleetatik desfila- tu ostean, artilleriako pabilioietan ezarri zirenak. Burgosetik baita ere, Legionarios de Albiñana edo albiñistak etorri ziren, batzuk zuzenean frentera abiatuz eta beste batzuk Gasteizen akuartelatuak geldituz, Antigo Baile Mickey-n (16) ezarri zirelarik, Renovación Españolako sail arabarrez lagunduak eta hornituak izanez. Espainia Nazionalera hiriburutik San Marcial erregimendua ere etorri zen. Bailen infanteria erregimendua (nº24), Huescatik etorritakoa, Gasteizko artilleria kuar- telean eta Floridako talde eskolarrean ezarri zen, bere hornikuntza bil- tegia San Ildefonso kaleko talde eskolarrean ezarriz; testuinguru honetan eta Bizkaiko frentea iraun zuen arte, Gasteizko hainbat eskola-talde aginte militarren pean gelditu ziren, hezkuntza etendu zelarik (17). Azaroaren azken astean, tropa guzti hauek mobilizatuak izan ziren, Arabako fronte ezberdinetara abiatuz; nazional militarren esanetan, Madrilgo gobernuak penintsulako fronte ezberdinetan erre- publikarren erasoak intentsifikatzeko eta koordinatzeko agindua eman zuen, Madril gaineko presioa uxatzeko. Agindua jaso ala ez, azaroa-

(14) Ikusi El Correo 2004-12-5, 10-11 orrialdetan.

(15) F.B.en esanetan, saiakera bakoitzak hildakoekin bukatzen zuen.

(16) Florida kalean

(17) Autoritate militarrek Gasteizko udaletxeari hainbat baimen eskatu zizkioten, indar militarrek bertako talde eskolarretan ezartzeko. Urriaren 9an aipatutako Florida eta San Ildefonso kaleetako talde eskolarren erabilera eskatu zuten, aurrenekoa tropak biltzeko eta bigarrena kanpainia hornigaien biltegian bilakatzeko. Bizkaia gaineko eraso nazionala jar- raitu ala, Gasteizko beste ikastetxe batzuk erabili ziren, hurrengoan datuak ditugularik: Abenduak 23an tropa nazionalak Aliko talde eskolarrean ezarri ziren; 1937ko martxoak 26an, “Cuarto de Hora”-ko ikastetxeaz jabetu ziren.



ren 30ean Arabako fronteetan errepublikarren operazioak era nabarmenean intentsifikatu ziren, Fndz. Ichaso gobernadore zibilak, bonbardaketa eta ez tandem aurrean biztanlegoa lasaitzeko mesua zabaldu zuelarik.

Abenduaren 1ean Legutio eta Elosuko fronteetan borrokak eman ziren, hegazkinak eta artilleriak (18) parte hartu zutelarik, errepublikarrek Legutio gaineko ofentsiba hasiz. Hurrengo egunean errepublikar hegazkinak erasora atera ziren operazio nazionalak mozteko, Gasteiz bonbardatua izanez eta hainbat zauritu gauzatu (19). Abenduaren 2an, errepublikarrek Legutio inguratuta zuten, edozein mementuan asediatua izan zitekeelarik eta Leintz-Gatzaga eta Arlaban errepedien gaineko kontrola berreskuratu zuten, Arrasate-Aretxabalet-Eskoriatzako ingurunea eskuratuz. Honen aurrean eta bertako tropa nazionalen egoera deskongestionatzeko, Alonso Vegaren kolumnak kontraerasoa prestatu behar izan zuen. Esan behar da, Alonso Vegaren kolumna errepublikarren ofentsiba eman aurretik, Anguiozarren borrokatzen ari zela eta erasoa ustekabean harrapatu zituela, Legutio gaineko kontraerasoa prestatzeko atzera egin behar izan zutelarik, Zumarragatik eta N-1 errepidetik Gasteizeratuz (20). Deskongestio lanetan, Charillapeako pinudi muinoaren gaineko eraso enbolbentea burutu zen, Landako tren geltokitik aurrerakada hasiz, errepublikarrek erresistitu zutelarik, bere artilleria Ubideatik aurrerapena ekiditzen saiatu baitzen, nazional posizioak kañoneatuz. Operazio honetan, Urbinan kokatutako artilleria eta hegazkinak parte hartu zuten eta errepublikar gatibu desente lortu zituzten, atxilotuta eta zainduta Gasteizera eraman zituztelarik, galdezkatuak izateko; (21) Onrubias komandanteren kolumnek ekintza hauetan ere parte hartu zuten. Nazionalen bajak ugariak izan ziren eta zaurituak larrialdietarako lehenengo sendakuntzak jasotzeko, Larrabeen kanpaina ospitale bat antolatu zen; dena den, osasun eta sendakuntza azpiegiturak aurrerantzean sakonago aztertuko ditugu.

Abenduak 5eko gauean, Legution zeuden Alonso Vegaren tropak errelebatuak izan ziren, Gasteizera osatzera etorri zirelarik. Flandeseko batailoien funtzioa, errepublikarrei eraso eta eskualdeko posizio estrategikoetatik jabetzea zen, hauen defentsa eta hurrengoko aurrerapenak milizia bolondresen eskuetan utziz. Abenduaren 6an,

(18) Asaltoko karroak eta kamioi blindadoekin aritu ziren, Ubidea eta Otxandioko bidetik gerturatuz eta Legutio gaineko erasoa hasiz.

(19) N.L. Legutiako posizio nazionalak atrinxeratzeko zebilenean, bi hegazkin beraien gainetik pasa eta Gasteizerantz abiatu ziren, bonbardaketaren lekuko izan zutelarik, Gasteizetik ateratzen zen kea ikusiz. Harrigarria da hegazkinak bueltan zetozenean, Legutiako posizioak ez bonbardatzea.

(20) F.B. eta F.U.ren testigantzen arabera.

(21) V.V. eta N.L. testigantzak kontutan izanik, frontearen eskuratutako errepublikar presoak, zeren-plazan antolaturiko kontzentrazio esparruan giltzapeztu zituzten, bertan egoera larrian biziz (gosea...).

Isuskiza mendian borrokak erreplikatu ziren, errepublikarrak berreskuratuz. Hurrengo egunetako ekintzak hegazkinak eta artilleriak burutu zituzten, fronteak etenduak geldituz. Abenduaren 9 eta 10an errepublikarrek Arrasate gaineko erasoak burutu zuten, eta 10an ere Legutio ekintzak gidatu zituzten. Abenduaren 13an, nazional hegazkinak Otxandio gaineko posizioak ikuskatu eta bonbardatu zituzten. Hurrengo egunean, errepublikarrek Legutio eta Arrasate gaineko erasoak erreplikatu zituzten, baina kontraerasoan nazionalak posizio estrategikoak lortu eta Arrasateko errepidearen kontrola berreskuratuz. 17an, hegazkin errepublikarrek Arrasateko posizio nazionalak bonbardatu zituzten, hurrengo egunetan artilleria nazionalen erantzuna jaso zutelarik, Legutioaldean errepublikarrek atzera eginez.

Nazionalak errepublikar erasoan egoera larrian zeuden, tropa gehiago etorri zirelarik. Abenduaren 2an, Gasteizko trengeltokira marokoko tropa erregularrak iritsi, eta Dato kaletik desfilatu ostean, Florida talde eskolarrean ezarri ziren, hurrengo egunetan Alonso Vegak gidatutako operazioetan parte hartuz. Testuinguru honetan, abenduak 5etik aurrera, Milizia Gasteiztarrek (22) ez-ohizko zerbitzuak prestatu zituzten, Gasteizko indar militar guztiak frentetara abiatu baitziren. Armamentu berria iritsi zen Arabako fronteak hornitzeko eta hobe defendatuak izateko, kalibre handiko obusen eztanda ikaragarriak Gasteizen entzuten hasi baitziren.

Arabar frentetako osasun azpiegitura eraginkortzeko, abenduaren 5an Gasteizera 4 ambulanzia iritsi ziren, Pau-eko Mr. Charauden (23) interbentzioz. Murgia odol ospitalea, abenduaren 11an zaurituz betea zegoen, lehengaez nahiko larri ibili zelarik, autoritateei etengabeko eskaerak eginez.

Abenduak 8ko goizean Nafarrateko posizioetan, hegazkinen arteko borroka eman zen, errepublikar trimotore bat suntzitua izanez. F.B. fronte honetan aritu zen, borroka honen lekuko izan zelarik, berak gertakararia honela azalduz: "...goizean errepublikar hegazkinak gure posizioak eraso zituzten, laster gure hegazkinak defendatzera ateraz eta "gorriak" uxatu zituzten. Gero, gure hegazkinak etsaiaren posizioak bonbardatzera atera ziren, baina koordenadetan hutz egin eta gure posizioak bonbardatuak izan ziren...". Eguerdian errepublikarrek erasora atera eta Gasteizko zerua 6 hegazkinetan zeharkatu zuten, Gasteizko 2 kaza defentza lanak egitera atera zirelarik, hauetako bat Lasarte aldean suntsitua izanez eta gidaria oinez Hotel Frontonera

(22) Gizon helduez osatutako gorpu auxiliarra, Gasteizko autoritateen agindutara zegoena. Honako hauek ditugu bere betebeharrak: kaleetako zaintzak eta patruila ibiltariak, bai oinez, bai motorizatuak antolatuz, Gasteiz kanpokoaldean zentinelak eta guardia lanak egin (segurtasun kontuak direla eta, bere kokagunea ez da azaltzen), ordenantza postuak eta egoitza publikoak kustodiatu, tiradoreen patruilak leku estrategikoetan ezarri, emergentziako zerbitzuak eskeintzeko patruilak prestatu...

(23) Frantziako alderdi eskuindarraren partaide.

itzuliz. Aireportu gasteiztarretik beste kaza batzuk erasora atera ziren, errepublikar hegazkin bat Gorbeialdean eroriz; bueltan errepublikar posizioak bonbardatu eta ametrailatu zituzten. Abenduaren 12an, hegazkin errepublikarrak Gasteizera gerturatu ziren Lakuako aireportua bonbardatzeko asmoz, baina nazional kazak igarri eta zeruan borroka latzak eman ziren, populazioak ametrailadoren tableteo entzun zuelarik; Lakuako aireportuko inguruek bonben eragina jasan zuten. Ekintza honetan, errepublikar bimotoreduna harrapatua edo “ukitua” izan zen, Iurre eta Aranguiz bitartean erori zelarik (24). 3 gidari zeramatzan, bata sobietarra, bestea ingelesa (25) eta azkena espainiarra izanez.

Gasteizko hiria eta Lakua eta Zalburuako aireportuak zaintzen zituzten aireko indar militarrek, alemaniarrek ziren. C.U.ren esanetan, Lakua aireportuko tropa alemanarrak Foronda (26) herrian ezarriak zeuden, eta Gasteizko kaleetan bere presentzia ohia bilakatu zen. Elkarrizketatu ditugun lekuko guztiek alemaniarren partehartzea baieztatu zuten, nahiz eta P.A.-eko orrialdetan beraien existentziaz ezer ez esan.

Abenduaren 5ean Orduñako frontearen, meategietako posizioan, errepublikarren aktibitatea somatzen hasi zen. Nazional eta errepublikarren arteko su lerroan, reketek San Pedro mendia okupatu zuten, bertan errepublikarrekin talka eginez. Uzkiano inguruko muinoetan behaketa lanak egin zituzten, errepublikarren aurrerakaden zain.

Abenduaren 6an, Orduñako sektorean, errepublikarrek tren blindatu batez baliatuz, eraso bat burutu zuten, bertan miliziano asko parte hartuz. Posizioak aurreratu eta Orduñako haitzaren gaineko kontrola berreskuratu nahi zuten, baina artilleria nazionalak ekimena bertan behera utzi zuen. Fronte honetan gauzak ez ziren asko aldatu, nazionalen destakamenduek Unza eta Uzkianon jarraitu baitzuten, bere posizio aurreratuekin. Abenduaren 10ean, Uzkianoko posizioetan, errepublikarren eraso gogorrek errepikatu ziren.

Legutio eta Orduñako fronteetan ihesaldiak aruntak bilakatu ziren, guardia zibilak eta Bilboko Falange Españolako 3. zenturiako kide batzuk Gasteizko indarrekin batera borrokatu baitzuten (Cecilio Roitegui eta Gregorio Fndz.); baita ere, P.A.-eko amabitxien eskaeren artean, Garellanoko Mendi Batailoaren (n<sup>o</sup>6) 6 soldadu eta reketek biz-

(24) V.L. gertakizun honen lekuko izan zen. Berak dio 5 hegazkin ibili zirela borrokan (2, 3ren kontra). Ametrailadoren erabilerak, herritarrengan arriskua sortarazi zuen, airean goitik behera egiten ziren tiroak lurraren kontra jotzen baitzuten. Bere anai eta aita zubi baten azpian babestu ziren. Gero, eroritako hegazkina bisitatu zuten, autoritateak heldu baino lehen.

(25) Prensa eta Propaganda bulegoaren arabera Sidney izendatzen zen.

(26) Informazio hau baieztatu egin dugu Gasteiz udaletxeko agiritzean, alemaniarrek Forondako marquesaren jauregian akuartelatuak egon baitziren 1937ko ekainaren erdi-rarte.

kaitarren hainbat kideen berriak aurkitu genituen. Aldi berean, Gasteizko errepublikarrek Bizkaiko zonalde errepublikarrera iristeko saiakera etengabeak burutu zituzten, uda osoan zehar Foronda eskualdetik igaro baitziren (27).

Frenteak etendu ziren herrietan, populazio zibilaren ustuketa eman zen, eguneroko eginbeharrekoak ezin baitziren garatu, bertan behera utzitako etxebizitzak indar militarrek aprobetxatu zituztelarik. Urkabuztaizen, Inosoko hainbat senide Uzkanon eta Oiardon errefuxiatu ziren; honen mantenua arazo batean bilakatu zen, Arabako diputazioari eskualdeko larre ezberdinak luberritzea eskatu zitzaizolarik (28). F.U.rekin izan genuen elkarrizketan aurrekoa baieztatu genuen, hain zuzen ere Gamarrako herrian, frentetik ihesi, Cestafe eta inguruko herrietako biztanleak ezarri baitziren. Foronda eskualdeko herri ezberdinetan tropak eta miliziak ezarri ziren, herritarren etxeetan asentatuz eta izua zabalduz. Hau aprobetxatuz, milizia bolondresen hainbat kide, rekisak (bai artikulo bai dirutan) egin zituzten okupatutako herrietan, ekintza hoiek debekatuak egon arren. Aktibitate hauek bertan behera usteko helburuarekin, gobernadore militarra azaroaren 13an Arabako herritarrei zuzendu zen, onartu zitezkeen inkautazio posible bakarrak berak baimentzen zituenak zirela esanez. Baita ere milizia bolondresetara zuzendu zen, bere ospea eta izen ona gorde zezaten.

Arabar frontea ez ezik, Gasteiz ere gerraren hatzaparrak somatu zituen, behin baino gehiagotan bonbardatua izan baitzen. Abuztuaren 6an, bonbardaketei buruz lehenengo berria daukagu; bonbardaketen aurrean, Gasteizko populazioak jarraitu behar zituen argibideak azaltzen dira. Babesgune batzuk aipatzen dira (Arkiloak, Errepublikako enparantza...) eta argiekin nola jokatu behar zen gogorarazten du (argiak itzali).

Abuztuaren 31an, gauean argien erabilerari buruzko argibide zehatzak eman ziren: gaueko 10:30tan hiriko kafeak itxi behar ziren, 10:45rako ibilgailu eta pertsonen zirkulazioa etendu behar zelarik; 11:00tan argindar publikoa itzaliko zen, etxe pribatuen argiak estali beharko zirelarik. Alarma antiaerea jotzekotan, Electra Vitorianak zuzenki argindarra mozteko agindua jaso zuen.

Teoria alde batera utzita, bonbardaketen mehatsuak irailak 17ko arratsaldean egia bihurtu ziren. 5 kaza errepublikar Gasteiz zeharkatu eta guztira, 30 bonba bota zituzten, helburu militar zehatzak suntsitzeko intentsioarekin. Paz kaleko artilleria kuartelean 5 bonba erori

(27) V.L. esanetan egiten zuten ibilbidea honako hau izaten zen: Gasteiztik Antezanara, Antezanatik Legardara eta bertatik basoan barneratzen ziren, Orduñako eta Gorbeialdeko mendi-mugak igarotzeko helburuz.

(28) "Boquete de la Peña" terminoan eta Lezaman errepublikarrei okupatutako lur batzuetan.

ziren, suntzipen handia gauzatuz, hainbat militar hilaraziz (29); mobilizazio egoitza (Santa Teresa kuartela) baita erasotua izan zen; gobernu zibiletik hurbil ere bonbak erori ziren; Polvorín Zaharra eta berria bonbardatuak izan ziren. Ajuria metalurgika (“Meta”) beste objektibo batean bilakatu zen, bertan ejerzito nazionalerako garraio ekipamendua egiten baitzen; Campsa refindegiak hainbat bomba jaso zituen, erregaien eskasia areagotu nahian; Ibargoitia altzari fabrika, zezen plaza inguruan zegoena, ere bonbardatua izan zen; azkenik, tren geltokia ez zen eraso honetatik libratu. Eraso zibilei dagokionez, Judizmendiko etxe bat bonbardatua izan zen; esan behar da, Judizmendin bateria anti-aereoak ezarriak zeudela mehatsu hauei aurre egiteko, gain honetatik hiriko sarguneak kontrolatzen baitziren. Hainbat zauritu (30) izan ziren, Gurutze Gorriko lana ezinbestekotzat hartu zelarik, gerora goraiatua izanez.

Protesta moduan, Gasteizen manifestaldi espontaneo bat antolatu zen; alde zaharretik irten, Paz, Dato eta Florida kaleak zeharkatu eta gobernu zibilaren eta komandantzia militarren aurrean etenarazi zen, hemendik disolbatua izanez. Gobernadore zibilak “legearen barruan” justizia egingo zela aitortu zuen, eta lanak errezteko, Gasteizko biztanleei salatari funtzioak egin zituzten gomendatu zien.

Egoera honi aurre egiteko eta Gasteiz gaineko babesera eraginkorra izan zedin, F.E. eta Renovación Española alderdien iradokizunez, harpidetza bat ireki zen Gasteizko indar militarrek hegazkin bat eduki zezaten. Ekimen honek jada, beste hiri nazional batzutan ospea izan zuen, Salamanca, Zaragoza eta Valladoliden adibideak azpimarratuz, Aeroplano Alava izeneko kolekta ireki zelarik, Gasteizko udaletxeak bere kudeaketaz arduratuz. Harpidetza hau bultzatzeko mehatsuak erabili ziren etengabe: “... las vidas de nuestras familias están en peligro...”, dirudunak erasotua izanez “... los ricos no dan ni sus hijos a la patria ni su dinero...”

Irailak 18ko goizean bonbardaketak errepikatu ziren.

Irailaren 19an hildakoen gorpuak hilerrira eraman zituzten, ekitaldia manifestaldi batean bilakatu zelarik. Hiriko komertzio guztiek, dolumen erakustaldian, bere ateak itxi zituzten; ekitaldiak igarotzen zituen kaleak, miliziak formatuetaz babesturik zeuden. Aurrenik, aipatutako militarren hilkutzak ezarri ziren, eta honen atzetik biktima zibilarena, Juana Fndz. Miras alegia; hauen jarraian, kargu militar altuak, autoritateak, Gasteizko biztanleko komuna eta hiriko milizia eta gorpu armatuak desfilatu zuten.

(29) Mendi artilleriako erregimendukoak (nº2) Dalmacio Ruiz de Arriaga, Delfín Alvarez Lopez, Aquilino Ruiz Mrtz., Jesus San Millán Martín, Vicente Díaz de Lecea, Felix Gastesi, Eladio Gomez, Justo Herrero Jimenez Francisco Franco Perez.

(30) Eladio Gonzalez eta Miguel Fndz. artilleriako soldaduak, Estanislao Ruiz Muñoz, Justo Herrero Jimenez 2 urteko umetxoa, Manuel Mrtz., Juan Sabadón 8 urtekoa, Ciriaco Viznarra Arana, Perpétua Etayo Mrtz.

Irailaren 20an, 2 trimotore errepublikar Gasteiz eraso zuten, Ajuria Metalurgika, kuartelak eta Polvorín zaharra bonbardatuz. Aldi honetan, Judizmendiko 25. etxean bonba bat erori zen, Francisca Ortiz Quintana hilaraziz; esan behar da ekintza odoltsuagoa izan zitekeela, hilaren 18an etxeko bizilagun gehienen artean aldegitoko erabakia hartu ez balitz.

Irailaren 22an bonbardaketa guztiak sortu zituzten hildakoen omezez mesa ospatu zen eta udaletxeak eraso hauek sortu zituzten hildako eta zaurituen berri ofiziala eman zuen.

Gasteizko biztanlegoa bonbardaketei ez zegoen ohitua, sirena hotsa automobilaren klaxonarekin nahasten baitzuen, hiri barnean honen erabilera debekatu zelarik. Bonbardaketen maiztasuna ikusirik, neurri berriak plazaratu eta hiri guztian zehar babesguneak orokortu ziren, hurrengoak izanik:

- Hornikuntza Plaza zonaldean, udal eta probintzi aurrezki kutxak eta korreos egoitzak egokituak izan ziren.
- Ciudad Jardín zonaldean, Elurretako agure-etxeak atek ireki zituen.
- Ali herrirantz doan zonaldean, Elektrizitate kooperatiba egoitzak (Beato Tomas de Zumarraga kalean) zuen lurazpikoa egokitu zen, 325 pertsona babesteko edukiera izanik.

Hauetaz gain, beste leku batzuk azpimarratu ziren: Arkiloen pasabidea eta udaletxe azpiko arkilo babestuak, elizak, egoitza benefikoak (batez ere lurazpikoa dutenak), ipar tren geltokiko lurazpiko pasabidea... etabar. Partikularrei egokiak ziren lonjak edo egoitzak eskeintzeko erregua zabaldu zitzairen, Defentsa Pasibo Antiaereoaren Batzordeak kale bakoitzeko bat edo 2 babesleku antolatuta nahi zituelarik; Lara jaunak Dato kaleko 49. zenbakian, 400 pertsonentsako edukiera zuen lurazpikoaren irekiera publikoa baimendu zuen. Etxe partikularrei bonbardaketen aurrean bere atariak irekiak ustea agindu zitzairen, kalean ezustekoan harrapatutako jendea babes zezan.

Gasteiz nazional ejerzitoaren komunikazio eta operazioetarako hiri klabea bilakatu zen. Aurreko egunetan gertatu ziren bonbardaketak ekiditzeko eta nukleo neuralgikoa hobeto babesteko, irailaren 23an 6 kaza eta bonbardero bat, Gasteizko Zalburuako aerodromora iritsi ziren. Gasteizko udaletxeak, hegazkin hauen gidariak omendu zituen irailaren 26an, hiriarri eskeinitako babesagaitik; dena den, hegazkin hauek ezin izan zuten Arabako frentetan bonbardaketak gaitzetsi. Aero Popular Alaveseko kideak hegazkin hauen mantenu mekanikoaz arduratu ziren, aeroportuaren zaintzan lagundu zutelarik.

Gasteizko populazioak hegazkin nazional hauen hegaldietara ez zegoen ohitua, etorri ziren egun berean maniobrak egin orduko, Gasteizko sirena antiaereoaren oihua zabaldu baitzen.

Testuinguru honetan, irailaren 21an Espainia enparantzako alde batean hegazkin nazional (31) bat erori zen, 3 zauritu gauzatu zituelarik (32); Gasteizko udaletxea istripu honen hildakoetaz arduratu zen, bere hiletaren gastuak onartuz. Gertakari honen inguruan hainbat hipotesi bildu ditut:

- Batzuen ustez, egun horretan hegazkin gidariek Círculo Vitorianon ospakizuna izan zuten. Behin jaia bukatuta, hegazkinlari batek Andra Mari Zuria ama birginari homenaldia eskeini nahi izan zion, hegazkinarekin San Miguel elizatik gertu pasaz. Maniobra honetan, hegazkinaren kontrola galdu eta udaletxearen eskin batean bukatu zuen.
- Beste batzuk, aurreko hipotesiarekin bat datoz, zehaztasun batean izan ezik: hegazkin gidariak homenaldia ama birginari eskeini beharrean, Gasteizen ezagutu zuen neska-lagun bati eskeini nahi izan ziola diote, Gasteiz utzi aurretik.
- Hirugarren hipotesia zihoen, hegazkina Arabako frentean jasan-dako erasoengaitik “ukituta” zetorrela eta kontrola galdu zuela Gasteiz gainean ze-goenean.

Hegazkinen bonbardaketen aurrean jokaera irakasteko eta arrisku egoera berriei nola aurre egin behar zitzaien jakinarazteko, urriaren 24an Gasteizen, Defentsa Pasibo Antiaereoaren Batzordea antolatu zen, Santaolalla lehendakaria izanik (33). Hitzaldi, argibideak zituzten panfleto eta simulakroen bitartez, hiritarrengana zuzendu ziren eta talde auxiliarrak hezitu zituzten egoera larrietan ardura jaso zezaten, hiritar ekintzak koordinatzeko asmoz. Batzorde honek, azaroaren 12an Principe Antzokian, Gerra Kimikoari buruz hitzaldia eman zuen, Gaspar Soto Gil de Lacuesta, militar ospitaleko medikua, hizlaria izan zelarik. Gas kutxakorrez eginiko eraso aeroa saihesten jakin behar zela adierazi zuen, honetarako Defentsa Pasibo Antiaereoeko talde bat, neutralizazio kimikoan ondo hezitu behar zela azpimarratuz.

Alvarez Arenas gobernadore militarrek honelako erasoen arriskurik ez zegoela esan zuen, baina badaezpada prest egon behar zirela egogorari aurre egiteko; eraso gertatuko balitz, ejerzito nazionalak baita eraso kimikoak aurrera eramateko gaitasuna zeukala adierazi zuen (un arma se opone a otra). Testuinguru honetan, Gasteizko Gurutze Gorriak gas itogarrien aurkako ekipoa (mozorroak) erosteko planteat-

(31) Alemaniara, Kondor legiokoa. Nazioarte mailako Interbentzioaren kontrako komitearen akordioa ez behartzeko, hegazkinak zituen alemaniar bereizgarriak aguro margotu eta estali ziren.

(32) Ahozko iturriek, istripu honetan Gasteizko esnegile batek bizia galdu zuela diote.

(33) Batzordea zuzentzen zuten beste kideak hauek ditugu: Soto Gil de Lacuesta komandante medikua, Pedro Alonso milizietako buruzagia, Jose Pr. Agote osasun militarren burua, D. Fuejo osasun probintzialaren inspektorea, V. Aguinaga telegrafoen arduraduna eta F. Sacristán artilleria kapitaina.

mendua martxan jarri zuen, harpidetza bat irekiz, azaroaren bukaeran egitasmoa lortu zelarik.

Gasteizen ejerzito nazionalako hegazkinak ezartzean, Alava hegazkinaren proiektuak bere funtza galdu, eta Aereo Popular Alaves taldearen iradokizunak indarra hartu zuen (34), harpidetzaren dirua proiektu honetara zuzenduz. Proposamen honek, Zalburuako aireportua berritzu nahi zuen eta gerra hasi baino lehen martxan jartzeko sorian egon zen proiektua berreskuratu zuen. Garaiko Zalburuako aireportuak, hegazkinak lurreratzeko eta aireratzeko bakarrik balio zuen, baina ez zeukan inolako zerbitzurik aireko indar militarrek behar zuten kuartelean bilakatzeko; Lakuan zegoen aireportua oraindikan egoera zaharkituagoan aurkitzen zen, Gasteizko aireportu azpiegiturak urriak izanez. Azaroaren bukaeran, Gasteiz ejerzito nazionalako zutabeen bilakatu zenean, berrizatzeko ideia indarrean jarri zen. Hilaren 29an, Valdes gobernadore generala eginiko bisita batean, Fndz. Ichaso gobernadore zibilak ekimen berria adierazi zion, gobernadorearen baiezkoa lortuz. Abenduaren 15ean, Gil Yuste eta Santaolallak plangintza azaltzeko Burgesera abiatu ziren, aireko ejerzitoaren onarpena lortuz eta berriztatze proiektua martxan jarriz, aireportuaren arrastoak XX. mendeko larogeigarren hamarkadararte somatu zitezkelarik. 1937ko ekainaren 14an, Gasteizko udaletxearen eta arabar diputazioaren ekimenez aeroportuak General Mola izena jaso zuen (35).

Altamenduak eta burututako estatu kolpe azkarra Espainiako hainbat lekutan porrota eta erresistentzia tinkoa jasan zuenean, gerra zibil luzearen irudia zabaldu zen. Bizkaia eta Gipuzkoa errepublikarren esku gelditu ziren, baina hilabeteak pasa ala, Gipuzkoa ejerzito nazionalaren pean erori zen, gerraren ekintzak Arabako fronteetan zentratuz. Honen aurrean, arabako autoritate nazionalak osasun eta sendakuntza azpiegitura sendoa eraikitzeko proiektua martxan jarri zuten. Erakundetze prozesu honen testuinguruan, abuztuaren 27an biltzarra edo Gerrarako junta zentral arabarra bildu zen, probintziako osasun zerbitzuen antolaketa orokorra martxan jartzeko helburuarekin, Nafarroako adibidea eredutzat hartu zutelarik. Sail edo batzorde honetako burua, Jose Perez Agote doktorea izango zen. Probintziako osasun zerbitzuak (Osasun egoitzak, Larrialdietarako egoitzak, Gurutze Gorria, erietxeak, kolegio profesionalak, klinika pribatuak...) bateratu nahi zituzten, guzti hauek Arabako gerrarako biltzar zentralaren esku

### 3.1.1 Arabako osasun eta sendakuntza azpiegiturak

(34) Zalburuako aireportuaren mendebaldean zegoen muinoan, lurazpiko angar bat eraiki nahi zuten, hegazkinak babestuak gelditzeko bai eguraldi bai etsaiaren aurrean; aireratzeko eta lurreratzeko pista argitu nahi zuten, gaueko irteerak ahalbideratzeko; azkenik, zerbitzu auxiliarietaz hornitu nahi zuten (suhiltzaile taldea, zerbitzua mekanikoa...)

(35) Mola generalaren azken bidaia, aeroportu honetatik atera zen, bizia galdu aurretik.



eta kontrolpean gelditu beharko zirelarik, arabar frentetako beharrei era eraginkor batean aurre egiteko.

Lankidetzeta hau era koordinatu batean garatzeko, lehenengo eta behin, erietxe bakoitzak zenbat pertsonak jasotzeko zuen ahalmena kontutan hartu zen eta zaurituak mobilizatzeko zituzten baliabideen kopurua; baita ere errekezatutako automobilen artean, zaurituak garraiotzeko egokitu zitezkeenak aztertu ziren. Ebaluaketa egin ostean, Arabako probintziak gerrako zaurituak zaintzeko zuen osasun azpiegitura honako hau zen:

Gasteizen antolatutako zerbitzuak:

- Ospital militarra zaurituentzako 200 ohe zituen.
- Santiago edo ospitale zibilaren barnean odol-ospitalea antolatu zen, normalean 50 ohe zituelarik, baina larrialdiko egoeretan 65 ohe egokitu zitezkeen. Lau talde kirurgiko zituen instrumentale ugariarekin, hauekako bi frenterantz atera zitezkelarik. Gurutze Gorriak ospitale honetan gerra zaurituentzako odol transfusio zerbitzua antolatu zuen, Gutierrez Celaya doktorea buru zelarik. Odol-emaileen zerrenda edo kontrola ez zegoen garatua eta eskeintzak urriak bilakatu ziren; honen aurrean, prentsan eta irratian hainbat iragarki plazaratu zituzten emaeleak lortzeko helburuarekin, urriak 13an, Bizkaiko frentea gerturatzen zihoa-nean, P.A.eko orrialdetan emaele zerrenda agertu zelarik. Ospitale honek, urriak 14tik aurrera udaletxeko izunen % 25 jaso zuen, bere finantziazioa erreteko.
- Apaizgaitegian egokitutako odol-ospitaleak, baldintza normaletan 355 ohe jaso zitzaizkeen.
- Molinuevo fundazioak 15 oheen aportapena egin zuen.
- Hernandez, Castilla eta Ortega-Artetxe medikuen klinika pribatuak bere zerbitzuak eskeini zituzten.
- Etxe partikularrak bere jabeak eskeinita. Adibidez, Joaquín Ordoñok bere etxeko logela bat eskeini zuen, Manuel Iradier 64an, zaurituak osatu zitezkeen; Prado kaleko 7. zenbakian hone-lako beste adibide bat aurkitu genezakeen, hiri osoan zehar bolondresak aurkituz.
- Gasteizko ikastetxeak gerra sakondu ala, bat-bateko ospitaletan bilakatu ziren. Osasun militarreko beharrak ugaltu ziren eta ospitale militarrek ez zuen gaitasunik zauritu guztiak jasotzeko. Testuinguru honetan, abenduaren 19an Samaniego ikastetxea (36) gerra garaian zaurituak jasotzeko egoitzan bilakatu zen, udaletxeak autoritate militarren eskuetan jarri ostean; Ursalina

(36) 1645 metro karratuko eraikin honek, Gerra Zibila amaitu arte, ospitale bezala funtzionatu zuen, 1939ko ekainaren 1ean udaletxeari itzuli zitzaizolarik. Hezkuntza egoitza bezala berresartzeko, desinfektazio prozesua jasan zuen.

amen eskolak 50 ohe egokitu zituen, Corazonistas ikastetxeak, aldiz 50 ohe...(37).

Gasteiztik kanpo antolatutako zerbitzuak:

- Urriaren inguruan, Estibaliz santutegiko sanatorio infantilean odol-ospitale bat antolatzeko proiektua martxan jarri zen kolekta bat irekiz, 50 zaurituentzako edukiera zeukalarik; Legutioko frentea gori-gori zegoenean funtzionatzen hasi zen.
- Legutioko frentea gori gorian zegoenean, Larrabeen kanpainako ospitalea antolatu zuten, frenteko zaurituak hasierako eta oinarriko sendakuntzak jaso zituzten.
- Urriak erdialdera, Luis Forondak, Forondako markesaren semea, familiak Foronda herrian zuen jauregia autoritate militarren eskuetan utzi zuen, Renovación Españolako kideak eta emakumeem saila bereziki, erietxe batean bihurtu eta bere kudeaketaz arduratu zezaten. Jauregia 30 ohe zituen.
- Lezako erietxea
- Probintzian zehar beste egoitza edo etxe batzuk egokitu ziren. P.A. egunkarian hurrengo adibideak aurkitu ditugu: Langraitzeko eskolan, Osman, Miñano Mayor-en, Rivabellosan, Letonan, Cerion, Asparrenan eta Kanpezun besteak beste, zaurituen zaintza eta osaketa posible egiteko instalakuntzak antolatu ziren.

Zerbitzu hauen kudeaketan, Gurutze Gorriaren aportapena ezinbestekoa izan zen. Hobeto ulertzeko, Arabako Gurutze Gorriak gerra zibilean jasan zuen bilakaera eta garatu zituen aktibitate guztiak aztertuko ditugu, premiazkoak bihurtu baitziren.

Arabako Gurutze Gorria entitate autonomoa zen, baina gerra zibila hasi eta denbora gutxira, (Abuztuak 18) bere autonomia galdu zuen, Arabako Gerrarako Biltzar Zentralaren eta osasun militarren zerbitzupuan jarri baitzen, Jose Perez Agote doktorea koordinaketaren arduraduna izanik. Erakundea berritu zen, (Irailak 8) ordurarte lanean zegoen Gurutze Gorriaren batzorde probintziala disolbatu, eta Nazional Defentsarako Biltzarrak (Junta de Defensa Nacional de España) mugimenduaren aldeko konfidantzazko karguak ezarri zituen, Catalina Urquijo de Oriol eta Jose Perez Agote bere ordezkarietan bilakatu zirelarik. Honen adibiderik aipagarriena, irailaren 22an, Pensamiento Alaves egunkarian Francisco Alarcón, Gurutze Gorriko asanbladaren idazkari nagusiak argitaratutako mesua dugu: "...Gurutze Gorriko brazalet eta banderín guztiak asanblada lokalak izenpetu eta seilatu beharko ditu balioa izan dezaten, bestela, ez seilatzekotan, autoritatei salatuak izango dira..." Gurutze gorri menpeko

(37) 1937ko abuztuan, autoritate militarrek "Seminario de Aguirre" lehen hezkuntzako ikastetxea rekasatu zuten, "Martinez-Anido" sendaleku-erietxean bilakatzeko.

eta leial bat antolatu nahi zuten, erakundea nazional helburuei subordinatatu zedin.

Nahiz eta aldaketak eman erakundearen barnean eta Burgosko gobernuaren agindupean jarri, Gurutze Gorria nazioarteko erakundea genuen, printzipio batzuk jarraitu eta errespetatu behar zituelarik; hauek bermatu zitezten, irailaren 11an, Gurutze Gorriko lekuko internazionalak Burgoseko gobernutzapean zegoen Gurutze Gorriko antolamendua aztertu zuten, Nazional Defentzarako Biltzarrak (J.D.N.) kide hauei harrera ona ematea eskatu egin zuelarik. Irungo frentea bisitatu ostean, irailaren 12an, Junod eta Brocard doktoreak Gasteizera abiatu ziren, bertako seminarioan ezarritako Gurutze Gorriko odol-ospitalea eta hiri honetako osasun azpiegiturak gainbegiratzeko. Ordezkaritza honi harrera emateaz, Jose Perez Agote eta Isabel Echanove, emakume erizainen burua, arduratu ziren, Arabar Gurutze Gorriko antolaketa eta sail ezberdinak erakutzi zitelarik, andarien desfileak ekitaldiaren amaiera ezarritz.

Gipuzkoako frentea erortzean, gerrako frentea Arabara urbildu ziren. Urriak-azaroak bitartean, Arlabaneko gainatik, Villareal-Legutio eta Orduñarantz zabaltzen zen frentelekeroan, ekintzak somatzen hasi ziren, abenduan gori-gori jarri zirelarik. Egoera honek Gurutze Gorriari lan asko sortarazi zion, ordurarteko osasun antolakuntza gainonduz; testuinguru honetan probintziako osasun azpiegiturak garrantzia hartu zuten.

Arabako Gurutze Gorriak gerra garaian zituen eginkuzunen artean, hauek garrantzitsuenak ditugu: frenteen inguruan larrialdietarako zerbitzuak osatzea, arabako odol-ospitalea antolatzea, emakumei erizainen ikastaroak ematea, zaurituen garraioetaz arduratzea, gerran aritzen diren bi bando etsaien arteko harremanak bideratzea (Korrespondentzia, bahituen eta udako haur kolonien trukaketa...). Ekimen hauek zehaztasunez eta sakonago aztertzeko, hurrengoko leerroak erabiliko ditugu.

- Gasteizko seminarioa odol-ospitalean bilakatu zen, 1936ko irailaren 7an, Gasteizko apezpikutzak Gurutze Gorriari eskeini ostean; eraldaketa honetan eta geroko kudeaketan, Santa Anako moja hospitalariek paper garrantzitsua jokatu zuten. Ospitale honek Gurutze Gorriko errekurtsu gehienak agortzen zituen, militar fondoek laguntza beharrean egonez; intendentzia militarra, teorikoki, zauritu bakoitzeko 4pts eta 50 zentimo ordaintzen zituen; azkenik, 1937ko apirilaren 15an, osasun militarren parte izatera pasa zen, gerrako ospitalean bilakatu.

Odol ospitale honek zerbitzu ezberdinak eskeintzen zituen, hurrengo instalakuntzak kontutan izanda: Goi zirurgia egiteko

kirofanoa, larraldietarako gela, sendakuntzak egiteko gela, farmazia zerbitzua, hainbat gela zaurituak osatu zitezen (San Juan, San Pedro, Santa Teresa, Nuestra Señora del Pilar) guztira 355 ohe zituelarik.

Gerra osoan odol ospitale honetatik 60.000 zauritu inguru pasa ziren, 1936ko azaroan eta abenduan aktibitaterik gorena ezagutu zuelarik, egoitzak zaurituak jasotzeko zuen ahalmena gainonduz. Honen aurrean, autoritate militarrek instalakuntzen ahalmena handitzea eskatu zuen, 1200 ohe ezartzera helduz. Hemen egon ziren zaurituen egonaldia atzeginarriagoa egin zedin, eskeintza partikularren bitartez liburutegi bat antolatu zen, irailaren 15an Jose Ortega bere liburutegi pertsonala eskeini zuelarik.

Egoitza honetatik aparte, Gasteiz beste osasun-instalaketak zituen, larraldietarako 4 hospitale edukiz, bertan Gurutze Gorriaren lankidetzara erabakigarria izanik: ospital militarra (c/ Comandante Izarduy), Molinuevoko ospitalea, Previsorako ospitalea eta Santiagoko ospitale zibila; hauek errepublikarren bonbardaketak eman zirenean, bere aktibitaterik gorena ezagutu zuten. Abenduan, egoitza hauek goraino zeudenan, zaurituen egonaldia atzeginarriagoa egiteko, gramofono partikularren eskeintza aurrera eramanean, liburutegi mugikorraren zerbitzuarekin konplementatuz.

- Gurutze Gorriak frentetako zaurituei lehendabiziko sendakuntza zerbitzuak eskeintzeko, kanpainiako ospitaleak eratu zituen, osasun militarrek eskeintzen zituen zerbitzuak konplementatuz. Arabako frentean zehar honako kokagunetan aritu ziren: Ullivarri Gamboan, Larrabea, Miñano Mayor-en, Gopegin, Arlabanen, Lucon, Betolazan, Murgian eta Izarran. Nazionalen okupazioa aurrera zihoan elean, Arabako Gurutze Gorriak zerbitzu hau beste bi probintzietara zabaldu zuen, Gipuzkoako frentean Leintz-Gatzagan, Aretxabaletan, Arrasaten, Bergara eta Angiozarren ezarri; bestalde, Bizkaiko frentean Otxandion eta Durangon ezarri zuen. Ospitale hauek hornitzeko, P.A. orrialdeen bitartez koltxoak eta sabanak jasotzeko erregua zabaldu zen. Laguntza hau osatzeko, ambulanzia zerbitzu bat antolatu zuten 1936ko irailaren 20an, Alonso Vegak Arlaban ganean eramandako operazioekin batera martxan jarri zena. Lehenengo ambulanziaz, militarrek rekisatutako furgoneta egokituak (BU 1152 Chevrolet/ BU 1102 Citroen/ VI 553 Delahage) ziren, baina denborarekin eta donatiboekin, berriak erosi zituzten. Donatibo hauen artean, Florez fundazioak (38) eginikoa azpimagarria dugu, Burgoseko gobernuaren zerbitzupera jarri eta 14 ambulanziaz eskeini baitzituen; partikularren eskeintzak ere ezin dira

ahastu: Práxedes Ochoa Laza bere Renault automobila donatu zuen.

- Nazioarteko Gurutze Gorriaren begiraleek, irailaren 12an Gipuzkoa eta Arabako frenteak bisitatu ostean, proiektu berri bat martxan jarri zuten. Erakundea errepublikar eta nazional eremuen arteko preso, emakume eta haurren trukaketa egiteko, eta bi leihakideen arteko harreman neutralak ezartzeko arduradun bilakatu zen, hau aurrera eramateko zerbitzu ezberdinak antolatu zituelarik.

Arabako Gurutze Gorriak, Arabar lurraldean zeuden haur-kolonia bilbotarren trukaketaz arduratu zen. Hauetako bat Acción Católicak Mendizorrotzan zuen kolonia dugu; beste bi Laguardian genituen, Ginebrako Gurutze Gorriaren begiradapean Donostiara eramán zirelarik eta hemendik Bilbora (39). Bizkaialdean zeuden arabar haurren itzulera ere posible izan zen (40). Honetaz gain, Orion uda-pasa zegoen 130 neska-mutilen kolonia zaragozarraren itzulera posible egin zuen (41), Gasteizko udaletxeak gestioan parte hartu zuelarik. Etxeratze lan hauek, abenduaren lehenengo asteetan ugaritu ziren, Bilbon zeuden hainbat arabarren etorrera posible eginez, Manuel Zabala abokatuaren semeen itzulera adibide garbia dugularik. Bestalde, Gurutze Gorriak zonalde errepublikarrean zeuden senideen informazioa ekartzen zuen, nazional eta errepublikarren arteko informazio zerbitzua aurrera eramanez; ekimen hau muturrera eramanda, repatriazioak eta presoen trukaketen tramiteak bideratu zituen (42); honen adibiderik garbiena, irailaren amaieran,

(39) Abuztuak 15ean bilbotar mutikoen koloniaren lehen aipamena aurkitzen dugu. Bilboko Acción Católica urtero, neska-mutikoen hiru uda kolonia antolatzen zituen, baina 1936an Euskal Herrian gerra egoeran zegoenez, bakarrik lehenengoa etorri zen, Bilboko San Vicente parrokiako 200 neska-mutilez osatua, Arabako lurraldean isolatua gelditu zelarik. Acción Católica de la Mujer de Bilbao-k, 100 neskato bilbotarren kolonia antolatu zuen, uztailak hasieratik Gasteizen uda pasa zebiltzatenak. Talde hau Errioxa kaleko María Inmaculada eskolan ezarri zen, mutikoak berriz, Marianistetan ezarri. Santaolalla jaunak neskaxo hauekin hizketan egon zen Aberasturin, non Espainia nazionaleko ikurrinak oparitu zizkien Bilbo nazionalen esku erori orduko erakutsiak izateko.

Irailak 18an Mendizorrotzako haur kolonien amaiera izan genuen, baina azaroaren 4rte Gasteizen egon ziren, egun berean Donostiarantz atera zirelarik, eta hemendik ingeles buke batek Bilbora bueltatu zituen, prozesu guztia nazioarteko Gurutze Gorriaren begiradapean eginez.

Laguardian beste bizkaitar mutikoen kolonia bat zegoen uda-pasa. Bizkaiko diputazioaren haur koloniak ziren, bere arduraduna Gastañaga jauna izanez. Abenduak 5an, etxeratu ostean, Gurutze Gorriko ospitalearako 100 ohe donatu zituzten.

(40) Algortako Trinitareen nobizio arabarrak etxeratu ziren, itsasuntziz Hendayaraino eramenez eta hemendik muga edo nazioarteko zubia zeharkatu eta alde nazionalen barn-eratu ziren. C.U.ri eginiko elkarrizketatik ateratako informazioa.

(41) Kolonia honen barnean Calatayudeko haurrak zeuden.

(42) P.A.-ren estimazioen arabera, abenduaren 1ean 4000 pertsonen elkartrukaketa gestionatu zituen.

Esteban Bilbao tradizionalistaren askatasuna izan zitekeen; ildo berean, Gurutze Gorri internazionalak, Juan Ignacio Luca de Tena eta Jose Mugika interbentzioaren bitartez, Bilboko Angeles Custodios egoitzan zeuden emakume presoek askapena bideratu zuen, bertan Laudioko kolegiataren ama gorena, Beatriz Alava, giltzapeturik zegoela.

- Abuztuaren 15ean Gurutze Gorri espainiarrak emakumeentzako herizain ikastaroak antolatu zituen. Hauetako batzuk frentetara zerbitzatzera abiatu ziren, eta beste batzuk, erietxe militarretan zerbitzuak prestatuko zituzten, bai zaurituak zaintzen bai sendatzeko materiala biltzen edo prestatzen. Araban, 1936ko irailaren hasieran, 20 emakume herizain diplomatu eta 60 laguntzaile genituen soilik, zerbitzu hauek ezinbestekoak izanik. Arabako Gurutze Gorria ekimen honetara batu zen, emakume bolondresak hezituz 6 hilabetetako ikastaroetan, gerra osoan zehar 396 emakume frogatu zituzten. Goraipatzekoa da, azaroaren erdialdera emakume hauei Madrilen lan asistentziala prestatzeko egin zitzaizen iradukizuna (43).

Gurutze Gorriak proiektu eta ekintza guzti hauek martxan jartzeko, donatibo, zozketa (1936ko abenduaren 25an) eta bazkideen bitartez finantziatu zituen, gerran zehar bazkideen kopurua hazkunde nabarmena jasan zuen; atal honetan azpimagarria da, Jesus Lopez de Apellaniz margolari arabarrak eskeinitako kuadroen enkantea; baita ere, Agote eta Tuesta doktoreek bere kontsulta pribatueta materiala eta tresneri kirurgikoa Gurutze Gorriko ospitalaren zerbitzura jarri izana. Honetaz aparte, bolondresen lankidetzaren erabakigarria suertatu zen erakunde honetako egunerokoan, Gasteizko Gurutze Gorriko asanbladak, gerra garaian 1000 bolondres eduki zituzten.

Gerrak dituen premiak zirela eta, zerbitzu berriak osatzeko beharra zegoen, hauetako bat eta garrantzi handikoa, Odol sartze talde mobilak sortzea izan zen. Testuinguru honetan, abuztuak 17tik aurrera, indar nazionalen odol analisiak egin zitzaizkien, bere odol-taldearen arabera eskumutur ezberdinak jarri zitzaizkizkien, odol emateak errazteko intentzioz.

Osasun saileko batzordeak, abuztuaren 28an, lehenengo neurriak hartuko zituzten soldadu eta milizien artean, izurriteari aurre egiteko; honetarako, soldadu eta miliziak tifusaren aurka txertatuak izan ziren, tropen artean garbitasun ohitura zabaltzeko ahalegina egin zen, eta bat batean sendatzeko paketea soldadu bakoitzari emango zitzaion. Tropen osasun oinarri mantendu behar ziren, soldadu gaixotuak 30 ohe zituzten egoitza isolatu batean zainduak izan zirelarik. Honetaz gain, herrietako biztaleen gaineko osasun kontrola eraman zen, gaixotasun

(43) Arabako frentetako abenduan aktibitate gorena jasan zuenean Arabako Gurutze Gorriak 503 pertsona aditu zituen.

epidemikoetaz lehen bai lehen jabetzeko, mediku zerbitzua antolatu zelarik; helburu hau aurrera eramateko, Arabar frentean zeuden herri guztietan txertaketak ezarri ziren Osasun-bide Instituto Probintzialaren eskutik, guztira 1156 rekete, 257 falangista eta 6196 zibil bakunatuak izan zirelarik, Fuego osasun inspektore probintzialaren gainbegiradapean (44).

Dena den epidemien zabalkundeari aurre egiteko, hainbat gaixotasun derrigorrez aitortu beharrekoak bilakatu ziren: Saranpioia, gonorea, biriketako tuberkulosia, neumonia, mutikoen diarreak, erisipela (ensipela), sukar tifoideoak, gripea...

Osasun zerbitzuak antolatu eta koordinatu arren, frenteatako aktibitatea zela eta, zaurituak etengabe agertzen ziren, Osasun batzordean gabezi asko ikusten hasten zirelarik, ez baitzuten soldadu guztientzako larrialdietan sendatzeko paketea eskeintzeko ahalmenik, kotoiez, sueroz eta bendaz hornitzeko arazoak aurkitu baitzuten; honi aurre egiteko, biztanlegoari eskaera zabaldu zitzaion, hauek 7 zentimetroko zabalera eta 5 metroko luzeerako lotailuak egin (irailak 4) eta diputazioko egoitzan utzi zituzten. Eskaera hau orokortu egin zen ospitaleak behar zituen produktu guztietara: eskuoihalak, burkoak, maindireak, produktu farmazeutikoak, etabar... Eskeintza hauekin, Gurutze Gorriko emakumeek eta bolondres partikularrek Fronton hotelean zuten tailerrean sendatzeko poltsa individualak egiten zituzten, Blanca Ibarra de Oriol eta Ramona Rodriguez Butel de Alonso zuzendaritzapean. Azaroak hasierarako jada, 6000 poltsa banatu zituzten miliziano eta militarren artean (45), baina beharrak zirela eta, material sanitarioaren eskaria eta eskaintza herrikoia behin baino gehiagotan errepikatu zen.

### 3.2 Madrilgo frentea

Arabako frentea eta osasun azpiegiturak deskribatu eta gero, Madrilgo frentearen azterketari ekingo diogu, hasierako menentu hauetan, penintsulako kapitalaren asedioa nazionalen helburu bilakatu baitzen. Testuinguru honetan, arabar bolondresen aportapena goraitzekoa izan zen, hurrengoko lerroetan azalduko dugularik.

Altxamendua Gasteiz eta Arabako eskualde gehienetan egonkortu eta hasierako egunen urduritasuna igaro ostean, indar militarrek eta bolondresak frenteatara borrokatzera atera ziren. Uztailaren 26an, autoritate militarren aginduz, Gasteizko bolondres tropak (reketeak, falangistak eta Acción Popularrekoak), goizeko seiretan trena hartu eta Madrilgo frenterantz abiatu ziren, coronel Escamez-en kolumnan barneratzeko helburuarekin, Aranda de Duero pasatu zutelarik.

(44) Sukar tifoien aurkako txertaketa Arabako hainbat herrietan eman zen. Kanpezun 750 pertsona sukar hauen aurkako txertoa jaso zuten urriaren 3an; azaroaren 3an Maetzuko 400 biztanle txertatuak izan ziren; azaroaren 9an Azaceta eta Virgalakoek jaso zuten.

(45) Indar militarrek 4000 poltsa inguru eskuratu zituzten, reketeak 1350 eta falangistak 250.

Lehenengo egun hauetan su lerrotik aldenduak ibili ziren, erretaguardia finkatzeko lanetan ibili baitziren, igarotzen ziren herrietatik errepublikarren garbiketa praktikan jarritz. Uztailaren 28an, P.A.-eko erreportariak Somosierrara abiatu ziren eta arabar bolondresak bisitatu zituzten, hauek Madriletik 60kmtara egonez, erretaguardia funtzioetan arituz. Posizio aurreratueta ere, arabarren presentzia somagarria zen, Justino de Ayala tenientea, Yecorako alkatearen semea, frentean artileriako bateria baten buru ibili baitzen.

Bolondres talde ezberdinetako batasun ideala, efimero bilakatu zen, arabar bolondresak bere filiazio politikoaren arabera sakabanatuak izan baitziren kilometro gutxiko erradio batean (kanpezuko agurearen testigantza). Reketeak, Madril probintzia barnean, Robregordo herrian finkatu ziren, (Madriletik 80 bat kilometrotara) Eugenio Perea hauen buruzagia izanik (46). Herri honek, indar nazionalen kanpamenduan bilakatu zen, bertan zerbitzu medikuak ezarri zirelarik, Juan Carlos Gomendio Larrañaga eta Antonio del Castillo mediku arabarren lana erabakigarria suertatuz. Arabar tropen hornikuntza antolatzeko, trengidarien taberna biltegi gisa egokitu zen, Moises Armentia honen arduraduna izanik; hasierako egunen karestia gainontzeko, Araba probintziak eskeinitako elikagaiak eta arropen destinoetako batean bilakatu zen. Zerbitzu erlijiosoek bere lekua zuten, Ascunce, 12 arineko (ligero) kapirauak, kanpainiako mesak antolatu baitzituen, reketeek egunero bi mesa jasotzen zituztelarik. Frentean eta etsaien lerroetako barneraketetan atxilotutako errepublikarrak, bertako guardia zibil egoitzan giltzapetuak izan ziren, abuztuaren 15an 16 preso aurkitu ditugularik. Deigarria da, herri honetan zeuden indar arabarren artean, bizkaitar eta gipuzkoar ugari aurkitzea: Arrasateko Abelino Beltrán, Pedro Ruiz de Azua, Victor Beitia, Juan Jose Zabarte eta bi anai, Claudio eta Modesto Otaduy; Eibarko Juan Berraondo, Santiago Baglieto, David Azcarate; Oñatiko Francisco Aizpuru, Antonio Ayastui; Tolosako Julio Egarra; Bilboko Javier Amán besteak beste. 15 rekete hauek, Puente buruzagiaren agindupean, 11 arineko bateria baten ardurapean zeuden, arabar reketeen 3. konpainia osatuz. Denborarekin eta urriak aldera, arabar reketeen bigarren konpainian ere, ihesitako bizkaitar reketeen presentzia (47) nabarmendu zen.

Robregordoko posizioa behin baino gehiagotan hegazkin errepublikarren helburu bilakatu zen, abuztuaren 14an eman zen bombardaketan, Jose Olalde Añivarro, arabar reketeen kapirauak, bizia galdu zuelarik.

(46) Somosierran arabar reketeen 1., 2., 3., 4., konpainiak aritu ziren.

(47) Francisco Beloki, Serafín Aguirre, Guillermo Zubiaga, Pedro Viñiegras, José M<sup>a</sup> Huertos, Eloy Landaluze, José M<sup>a</sup> Solaun, Esteban Gurtubay, Amador Serrano, rekete bizkaitarrak urriaren 12an Braojosen zeuden.



Indar nazionalen aurrean, errepublikarrak Buitragon eta Villavieja de Lozoyan indartsu egin ziren, bertan su-marra finkatuz, bere okupazioa indar nazionalen helburuan bilakatu zelarik.

Gerra testuinguru honetan epikarentzako tartea aurkitzen dugu; irailak 20 inguruan P.A.-ek Robregordon gertatutako pasartea erreproduzitu zuen: ...errepublikarrek haizea alde zutela, muinoari su eman zioten, txingarrekin batera aurrera eginez, nazional posizioetara gerturatuz; bapatean zeruan hodei bat agertu, euri tantak bota eta sutea itzali zuen, errepublikarren eraso moztu egin zuelarik, nazionalen tirora geldituz. Aurrerantzean Loma Verde, Loma Milagrotaz ezagutu zen...

Falangista arabarrak Atienzara bidaliak izan ziren, posizio estrategiko hau defendatzera. Hurrengo egunetan zatituak izan ziren, batzuk Paredes de Sigüenzara abiatu eta Lpz. Gomez kapitainaren kolumnan barneratuak izanik. Beste batzuk, aldiz, Guadarrama aldean operazioak burutu zituzten, Navafria mendia (Lozoyako kanaletik gertu) hartzeko helburuarekin eta handik posizioak altxa eta Matalabuena (Matabuena?) herrian ezarri ziren, uztailaren 29an.

Uztailak 26an, hasiera batean, Acción Popularreko bolondres arabarrak, Navafriara abiatuko ziren; gero hilabete bat inguru Robregordon egon ziren baina laster Orcajo de la Sierra eta Caucho de la Nava ingurutan kokatuak izan ziren, herri hauetako mendi gainetan borrokak izan zituztelarik. Abuztuko lehenengo astean, Prádenas del Rincónen falangistekin batera aritu ziren, urriaren hasieran Montejo de la Sierrara abiatu zirelarik (48), bertan hilabetea igaroz. Errepublikarrak gertu zeuden eta barneratze batean, 90 behi lapurtu zizkieten.

Acción Popularreko beste talde batek, urriaren 28an Algorako fronteko (Sigüenza) operazioetan parte hartu zuen, Cerro de San Cristobal eskuratuz; bertan arabar falangistekin (49) aritu ziren. Azaroaren 21ean sektore honetako arabar bolondresak Alcortoko herria okupatu zuten.

Somosierra fronteko lehen bolondres zaurituak, abuztuaren lehenengo egunetan Prádenas del Rincón inguruan izan genituen, Lpz. Gomez kapitainaren agindupean zegoen eskudra falangista arabarren bi kide gasteiztar izan zirelarik: Efisio Alti eta Luis Ibarra. Eskudra honek (Enrique Alvarez, Tomás Mendizabal, Luis Valera, Julio Aravio-Torre, Luis Ibarra, Efisio Alti), Prádenas del Rincón herrian erresistentzia errepublikarrek topatu eta borroka baten ostean, herria okupatzea lortu zuen, 18 errepublikar (beraien artean

(48) Arabako Acción Popularreko bolondresak: Juan Fndz. de Roitegui, Juan Jose Saez de Ugarte, Antonio Acilu, Severino Saint-Bois, Leandro Dueñas...; alderdi honetako gazteria (J.A.P): Julio Eraña, Felipe Murguiondo, Teodoro Jimenez, Samuel Saenz de Urturi. Falangista arabarrak: Eugenio Mrtz. de San Vicente, Gregorio Prz.

(49) Bertan aritu ziren gasteiztar falagisten izenak: Julio Santos, José Azcuénaga, Andres Arrieta, Pedro Hurtado eta Cesareo Villa, guztiak falangeko Victoriano G. de Albeniz agindutara.

emakume bat ) atxilotuak izan zirelarik. Bertako arabar falangista batzuk, legioaren 12. konpainiarekin aritu ziren. Arabako Falangeren 2. eta 3. eskuadrak Pradenas del Rincón-en kanpamendua ezarri zuten.

Abuztuaren 15an Arabar kolumnak, bai falangistak bai reketeak, Navafría bidean jarri ziren, bi egunetan posizioetara iritsiz, aktibitate-rik gabeko erretaguardian ezarriz. Bertatik, P.A.-eko erredakzioira rekete batzuen (Jesus Diaz, Pablo Casado, Felix Ruiz de Arbulo) gutuna iritsi zen, Arabako Margariten buruari eskerrak emanez jasotako opari eta ezinbesteko ekipazioagatik (kapoteak eta bandolerak); arabar reketeen 1. konpainia bertan zegoen.

Laster borrokan sartu ziren, abuztuaren 26an artilleria eta hegazkinen laguntzarekin, arabar reketeen bi konpainiek aurrera egin eta gain estrategikoak kontrolatzea lortu zutelarik. Borrokak errepikatu ziren, intentsitea era nabarmenean handituz, kanpainako ospitalea antolatu zelarik. Tajadilla mendixka okupatu nahiean, 27an operazioak ugaritu ziren, Lozoyako enklabe estrategikoa menpean edukitzeko; operazio honetan arabar reketeen 1., 2. eta 4. konpainiak eta falangeko zenturia arabarrak aritu ziren. Ejerzito nazionalak, bolondres indarrekin batera, La Polvorosa eta Peñanegra posizioak okupatu zituen, Lozoyako urtegira zihoan errepidearen kontrola lortu zuelarik, 2000m. tik gora egonez. Okupatzen zihoazen herrietan, populazioa ez zen mugimendu nazionalari batzen, parte hartzeko mehatsuak zabaldu zirelarik. La Polvorosatik Mauricio Saenz de Santamaria, arabar reketeen kapi-rauaren gutuna, abuztuak 5ko P.A.-en argitaratu zen, fraka, alkondara, kafea, azukrea, likoreak eta tabakoaren beharrean zeudela adieraziz. Navafriako eskualdean zehar mugitu ziren, irailaren 15an arabar reketeen taldeak Pico-Neveon aritu zirelarik.

Irailaren 9an arabar reketeak Braojos-era destinatuak izan ziren, sektore honen nagusia Gerardo D. de la Lastra izanik; bertan, arabar reketeen 3. konpainiak (50) kanpamendua ezarri zuen, Irizar, Echanove eta Ugarte ofizialen agindutara egonez; Laguardiako reketeak posizio honetan aritu ziren, beren kapi-raua Alberto Lpz. Berganzo izanik (51). Irailaren 29an, Grizar sargentoaren zuzendaritzapean, herri honetako Roca Alta terminora desplazatuak izan ziren, Laguardia udaletxeko ordezkaritza bertaratu zelarik hornigai eta elikagaiak eramanez. Urriaren 29an, arabar reketeen 1., 2., 3. eta 4. kon-

(50) Arabar lurraldeko herri ezberdinetakoez osatua. Laguardiakoak Eugenio Cova Ugarte, Cruz Mateo, Juanito Gamarra, Teodoro Gamarra, Felipe Muñoz, Jose Lorenzo Briones, Jacinto Torres, Antonio Prz. Laberza, Luis Uriarte, Casimiro Fndz. Sabino Lpz., Lorenzo Treviño eta Juan Saez; Salinillas de Buradonekoak Antonio Areta eta Terencio Leiva; Juan Ceneque Berantevillakoa; Kanpezukoak Julio Eyasa, German Mendoza, Otilio Gomez de Segura eta Juan Balza; Donato Prz Virgala Mayor-ekoa

(51) Kapi-rau honen gutunak P.A.en publikatuak izango dira eta konpainia honen mugimenduak aztertzeko erabiliko ditugu.

painiek Cerro de las Tajadillas-en okupazioko operazietan parte hartu zuten.

Posizio edo su-lerro hauetan, bolondresek kanpain dendetan lo egiten zuten. Behin Cerro de las Tajadillas-eko gune estrategikoa okupatuta, aktibitatea gutxitu zen, erretaguardia sendotzeko aprobetzatu zutelarik. Parapetoak ondo babestetik aparte, txabolen eraikuntzan aritu ziren, hotzatik babesteko. Txabola hauek, lurrean zulo bat eginez eta sakuz inguratuz egiten ziren, zuhaitz adarrez estaliz eta hauekin, aldi berean, teilatua eginez. Madrileko frentreak egonkortu ala, etxebizitza inprobisatu hauen eraikuntza orokortu zen. 8 edo 9 txaboletatik, bat zaintza lanetan aritu behar zen, errepublikarrak gertu baitzeuden eta, behin baino gehiagotan erasoak burutzen zituzten, Lozoyako urtegia ondo zaintzen zutelarik, Madrilgo hiriak kontsumitzen zuen ura kutxatua ez izateko. Guardia lan hauek batz best 3 ordu irauten zuten, hotza egiten zuen egunetan maiztasuna txikitzen zelarik. Neguan sartu ala, txaboletan hotza barneratu zen, saku eta adarren artean aizea pasatzen baitzen, berotasuna gordetzeko mantaz estaltzeaz aparte, bolondresek elkarrekin lo egiten zutelarik, gorputzak bat bestearen aurka elkartuz; berogailuen eskeintzak oso preziatu bilakatu ziren, Araban hirurogetamar inguru jaso zirelarik, abenduaren bian fronte ezberdinetarantz ateraz (52).

Rekete arabarraren 3. konpainiak, urriaren 30an Roca Altako posizioak laga zituen. Braojosera jeiztean, bidearen zailtasuna zela eta, zihoazen kamioneta irauli zen. Roca-Alta posizioa menderatzea lortu zuten, azaroaren 2an jada atzean utzi zutela, aurrez-aurre Guadarramako mendi petrea edo “Estizko mendia” zutelarik, eta hegoaldean Lozoyako urtegia eta Buitrago utziz. Azaroaren 20an, Moscardo generalak, Toledoko Alkazarreko defendatzailea, posizio hauek bisitatu zituen egoeraren berri jakiteko, arabar reketeek bere aurrean desfilatu zutelarik, alde zurretik jasotako argibideak jarraika.

Braojoseko erretaguardian, azaroaren 8an, arabatar rekete konpainietako kapirauek (53) bertako haurren hezkuntzaz eta nazionalen okupazioak utzitako umezurtzen mantenuaz arduratzea erabaki zuten. Eskolan gurutzea ezarri zen egunean, herrian ospakizuna antolatuta zuten, mesara autoritate zibil (54) eta militarrek joan zirelarik.

Arabar reketeen 2. konpainiak Braojosen izandako aktuazioagaitik, Garcia Escamez kolumnen ohorezko aipamena jaso zuen, azaroak 12an, Felipe Elizagarate, Luis Sautu, Luis Arrieta, Ricardo Luengas, Vicente Aldecochea, Eloy Grijalba eta Bernardo Abecia... bestek beste, goraiatuak izan zirelarik.

(52) P.A.ko orrialdetan berogailuen lehenengo eskakizuna azaroaren 11an aurkitzen dugu.  
(53) Alberto Lpz. de Berganzo, Amancio Landaburu, Ignacio Elguea

(54) Maria Rosa Pastor Falangeko emakume saileko propagandista bertaratu zen. Aranda de Dueroko falangistak eta margaritak ekitaldian egon ziren. Lastra eta Rabanera komandanteek ospakizuna presiditu zuten.

Iparreko fronteak berotu zirenean, frente honetako informazioa oso laburra bilakatu zen eta gainera, elurra agertu zen, aktibitatea murriztuz. Abenduaren 8an nazionalak Paredes de Buitragoko lubaki errepublikarretan barneratu ziren, eskuko granadekin egindako erasoaren ostean, bertan arabar bolondresek parte hartu zutelarik.

Azaroaren 4an Madrilgo fronteari buruz kazetariak informatzeko zerbitzua antolatu zen, 3 bulego sortuz Avila, Talavera eta Toledon. Fronteetara bisitak egiteko, komandante militarren oneritzia behar zen, aurrerantzean informazioa eta argazki erreportai nahiz zine-matografikoak aurreikusiak izanez.

Bolondres arabarrak etengabe Madrilera abiatu ziren. Uztailaren 28an, frentera zihoazen herritar bolondresen homenez, Aguraineko San Juan elizan mesa ospatu zen, Bonifacio Lpz. de Heredia apezak gidatuta. Abuztuaren 7an, Eugenio Perea Gasteizen egon zen bolondres talde berri bat Somosierra eramateko, 64 gazte aukeratu zituelarik; hauekin batera, Peñacerradatik 20 bolondres (55) atera ziren Somosierrara. Abuztuaren 12an, Gasteiztik zalditeria erregimenduko 2 eskudroi, Enriquez eta Peletegi generalen eta Velasco komandantearen agindutara, Alto del León frenterantz atera ziren gerrako materiala eta zaldia eramanez. Deigarria da Kanpezuko botikariak izandako jarrera: frentera joan nahirik, negozioa aurrera eramateko ordezko baten bila ibili zen, P.A.-eko orrialdetan hiruzpalau iragarki argitaratu zituelarik. Irailaren 17an Gasteiztik beste reketek kontingente berria atera zen Somosierrantz eta irailaren 22an, gauzak errepikatu, eta Arabar reketeen konpainia berria frenterantz abiatu zen. Irailaren 21an, Berantevillako 77 gazte frenterantz atera ziren, eta beste 30 uzta bukatu ostean bidean jarriko ziren. Gerra “saintu” honetan elizgizonen aportapena goraiatzekoa izan zen, hainbat apaiz arabarrak frentera abiatu baitziren borrokatzera; honen adibide, Luis Fnz. de Retana, Saturnino Onraitia eta Lázaro Mendijur izan ziren, Guereñu, Gauna eta Hijaño apaizak izanik.

Testuinguru honetan, gerrako lehenengo hilabetearen “euforia” kontutan izanik, bolondres gisa joan zirenen kontrola oso eskaza izan zen autoritate eta instituzio lokaletan; honi aurre egiteko, irailaren batean bolondres senideei gomendatu zitzaizen udaletxe bakoitzeko milizietan (Renovación Española, Acción Popular, Falange, Requete) izena ematea edo Arabako Gerrarako Biltzarra jakinean jartzea, alderdi bakoitzak zituen indarrak neurtzeko eta koordinatu ahal izateko. Ildo berean, irailaren 7an komandantzia militarrek milizia eta ejerzitoan bolondres sartu zirenen izenak eta beraien bizitzako datuak eskatu zituen, leialtasuna zihurtatzeko.

Aurrerantzean, milizia bakoitzak bere reklutamendu egoitza antolatu zuen, alistazio lanak kontrolpean izateko. Probintziako reketek

Gasteizen zuten kuarteltxora abiatu behar ziren izena ematera, irailak 14an 24 kanpezotar aurkeztu zirelarik. Urriaren 2an, P.A.-ek 3000 bolondres arabatar alistatu zirela baieztatu zuen. Abenduaren batean, P.A.-ek estimazio hauek era argian azaldu zituen, hurrengo sailkapena eginez:

- Rekete aktiboak edo frentean dabiltzanak, 2500 kidedan zenbatu zituen. Hauei rekete auxiliarrak (1138 kide) eta margarita-reketeen (2321) kopurua gehitu behar zitzairen, gerrako garapenean beraien eginkizun zehatzak baitzituzten.
- Falange Española de las J.O.N.S.-en kide kopuru zehatza ez da agertzen, hasiera batean Gasteizen ordezkari eta antolakuntza eskasa baitzuen. Gerra iraun ala, indarrak ugaritu zituen, Gasteizen hainbat egoitza lortuz: Postas kalean, Dato kalean bi egoitza eta Becerro de Bengoa kalekoa.
- Acción Popular Alavesako (C.E.D.A.-ren ordezkaria Araban) aportapena: 150 bolondres frentera bidali zituen (56) eta erretaguardian bere emakume saila 175 kideetaz osatua zegoen. Frentetan zerbitzatzen ez zuten alderdikideek, Milizia Gasteiztarrean barneratu ziren.

Bolondresekin batera, filetara barneratu behar izan ziren renplazoa aritu ziren. 1936ko barneraketa deialdiak hauek izan genituen:

- Abuztuaren 11an, J.N.D.ko 29. Dekretuaren arabera, 1933, 1934, eta 1935ko renplazoak, nazional filetan barneratu behar ziren, inutilitate osoa ez zutenak ere barneratu behar zirelarik. Ikasleak baziren, azterketa deialdiak luzatuko zitzaizkien, ahal zen unean egingo zirelarik.
- Irailaren 26an 1935, 34, 33 eta 32ko bigarren sei hilabeteko kintook filetara barneratzeko agindua eman zen.
- Urriak 11an Gasteizko erreikutamendu kutzak (nº41) 1936ko renplazoko reklutak sosketatu zituen, Arabako udaletxe ezberdinen ordezkari eta bertaratu zelarik. Andres Herran, Felix Guernica eta Manolo Ruiz, Gasteizko kintook, Erice tabernan bere agurra afari batekin ospatu zuten.
- Urriaren 29an 1932ko renplazoaren lehen deialdikoak filetara barneratu behar ziren.
- Azaroak 15 eta 19 bitartean, 1931ko bigarren renplazoa filetara barneratu zen.

Gerraren premiak zirela eta, azaroak erdialdera frentea hornitzeko bolondres gehio behar ziren. P.A.-en lehenengo iragarkiak aurkitu genituen populazioari reketeetan alistatzeko eskatuz, honako mesuak argitaratu: “...¡ Vitorianos! ¡ Alaveses! ¡ Hombres útiles para el mane-

(56) Uztailak 26an 50 kide frentera atera ziren, beste 100 kideak geroago sartuz.

jo de las armas! No teneis derecho a permanecer neutrales en esta contienda, mientras exista un puñado de tierra española en poder de la canalla marxista. Alistaos en el Rekete. El Rekete os espera. Sirviendo en él servis a España...”. Bolondresak, Gasteizko rekete kuartelean (Florida eta Errioxa kaleen arteko iskinean), inskripzio ematera joan behar ziren.

Militar agintaritzza ere urria bilakatu zen. Honi aurre egiteko, Alferez izateko kurtsoak antolatu ziren Burgosen, frentean hilabete bat baino gehiago egonak ziren milizia bolondresentzako, 400 postu bete beharko zirelarik. Bertan Javier Rabanera eta Arturo Jimenez reketeak egon ziren urriaren amaieran. Azaroaren 10ean Antonio Oriol, Jesus Fndz. Barrutia, Tomás Bulnes (Gasteizko udaletxe berriarekin harremandua), Antonio Irigoyen eta Antonio Iribarren reketeak barneratu ziren.

Gure datuak P.A.-eko orrialdetatik atera ditugu, baina hau osatu nahi eskero, diputazioak urriaren 16an frentean hildako arabar gazte-  
 en zerrenda argitaratu zuen.

Uztailak 29 Sotero Badiola, Flandes Batailoieko kaboa, Otxandio gaineko behatze lanetan hil zen, uztailaren 26an jasotako zauriengatik.

Abuztuak 5 Juan Montoya eta Rodrigo Gamboa, Orduñako frentean bizia galdu zuten.

Abuztuak 14 Jose Olalde Añivarrok, Gasteizko ospizioko kaperau tolosarra, arabar reketeen kapiraua zena, Robregordon bizia galdu zuen.

Abuztuak 21 Marino Ullivarri Bastida, Jovillaseko maixu bolondres falangista, Atienza hil zen.

Abuztuak 26 Gaspar Mrtz. de Alegria Garrindo, mendi erregimenduko gaztea Oiartzun inguruan zauritua izan zen eta Lezakako ospitalean hil zen.

Abuztuak 31 Nemesio Ruiz de Arbulo García de Vicuña, maixua eta arabatar reketeen sargentoa, Navafriako operazioetan hil zen.

Abuztuak 31 Felix Ruiz de Arbulo García de Vicuña, Argandoñako rekete arabatarra, Navafriako frentean hil zen.

Irailak 5 Felix San Miguel Garcia de Albeniz, Ullivarri-Jauregikoa, Irurtzunen, Irun gaineko erasoan hil zen.

Irailak 7 Cayo Lpz. Uriarte, Laguardiako reketea, Navafrián hil zen.

Irailak 22 Urbano Angulo, Santurdeko reketea, Braojosen hil zen.

Irailak 24 Ramón Crespo Mocorrea, infanteriako komandantea, Somosierra-Guadarramako reketeen kolumnen buruzagia zena, Braojosen hil zen.

Irailak 24 Francisco Miyar Somosierrako frentean bizia galdu zuen.

### 3.3 Frentean hildako arabarrak

Urriak 4 Eladio Prz. del Palomar Luyando, Flandeseko mendi erre-gimentuko soldadua, Anguiozarren hil zen.

Urriak 4 Vicente Fndz. de Landa, Asaltoko guardia, Arabako fren-tean hil zen.

Urriak 5 Vicente Prz. Vigil, Asaltoko guardia, Aretxabaletako bide-an zauritua izan eta Gasteizko ospitale militarrean hil zen.

Urriak 5 Cecilio Arnalek, Acción Popularreko bolondresa eta infan-terriako teniente erretiratua, Arrasateko frentean bizia galdu zuen.

Urriak 5 Germán Bastida Pellicer, Flandes Mendi Batailoiko kon-plementoko alfereza, Legutioko frentean hila izan zen.

Urriak 5 Rufino García Prz. de Villarealek, Ullibarri-Jauregikoa, Legutioko frentean bizia galdu zuen.

Urriak 6 Antonio Sanchez Saez de Jauregui, Ajuriako teknikaria eta Flandes Batailoieko alfereza, Anguiozarren hil zen.

Urriak 8 Serapio Ortiz de Arri Beltrán de Guevarak Zaitegin bizia galdu zuen, errepublikarren aurka arituz.

Urriak 8 Felix Mrtz. Saez-ek, Hereñakoa, arabar reketean 11. kon-painiako sargentoa, Arlabaneko gainan bizia galdu zuen.

Urriak 8 Francisco Oraz, Oyoneko reketee arabarra, Arlabaneko gai-nan hila izan zen.

Urriak 8 Jesus Diez Saenz de Valluerca, arabar komandantziako guardia zibila, Eibarko frentean hil zen.

Urriak 14 Fernando Oriol Urquijo, arabar reketean 9. konpainiako alfereza, hospital zibilean hil zen Arlabaneko frentean jasotako zau-riengaitik.

Urriak 15 Victor Cortazar, artilleriako tenente koronela, Markinako frentean hil zen.

Urriak 19 Antonio Acha Aguirrek, infanteriako kapitaina, Anguiozarreko frentean bizia galdu zuen.

Urriak 23 Alejandro Saez de Pobes Ruiz de Austri-k, arabar reketee-n 9. konpainiako kaboa, Rivabellosakoa, Leintz-Gatzagan bizia galdu zuen.

Urriak 23 Aurelio Izaga Ortiz de Zarate, reketee arabarraren sargen-toa Arlabaneko frentean hil zen.

Urriak 24 Marino Gomez-ek, Labastidako reketee, Braojoseko fren-tean bizia galdu zuen.

Urriak 24 Jesus Mrtz. Arriaga, Flandes Mendi Batailoiko kaboa, Eskoriatzako frentean hil zen.

Urriak 25 Jose Ruiz Mrtz., Flandes Mendi Batailoikoa, Eskoriatzako frentean bizia galdu zuen.

Azaroak 4 Luis Serrano Lund, Flandes Mendi Batailoiko tenentea, Anguiozarren jasotako zauriengaitik hil zen.

Azaroak 21 Constantino Allende Sancho, Acción Popularreko miliziano arabarra, Sigüenzako frentean hila izan zen.

Azaroak 27 Felix Gonzalez de Zarate Ibañez, arabar reketean 8. konpainiakoa, Anguiozarreko frentean jasotako zauriengaitik hil zen.

Azaroak 30 Angel Lpz. de Munain aguraindarra, Arlabaneko frentean hil zen.

Azaroak 30 Jose Francisco Zarate Iriarte aguraindarrak, Alto del León-en bizia galdu zuen.

Abenduak 1 Francisco Ortiz de Barrón Ortiz de Zarate artileroa, Gasteizko ospital zibilean hil zen.

Abenduak 2 Daniel Ochoa Fnz. de Retana, falangista gasteiztarra, Legutioko frentean hil zen.

Abenduak 3 Julian Cañedo-Argüellesek, Flandes Mendi Batailoiko sargentoa, Nafarrateko frentean bizia galdu zuen.

Abenduak 4 Luis Catón Presak, 17 urteko falangista, Legutioko frentean bizia galdu zuen.

Abenduak 4 Domingo Rz. de Gauna, Adanakoa eta Flandeseko batailoiekkoa, Legutioko frentean hila izan zen.

Abenduak 4 Gregorio Prz Reyes, Mendi Artilleriako erregimenduan alfereza, Leintz-Gatzagako frentean hil zen.

Abenduak 4 Veremundo Mtz. Saez, Leintz-Gatzagako frentean hil zen.

Abenduak 4 Bernardino Macias Sanchez, Flandes Mendi Batailokoa, Leintz-Gatzagako frentean hil zen.

Abenduak 7 Angel Ruiz Garcia de Amezaga, Flandes Batailoiko alfereza, Legution hila izan zen.

Abenduak 10 Claudio Marquinezek, Urizarrakoa eta Flandes Batailoiko brigada, Unzako frentean bizia galdu zuen.

Abenduak 12 Tomas Ugarriza Ingunza, arabar reketean 5. konpainiakoa, Legution hil zen; bere aita Zigoitiako alkatea zen.

Abenduak 12 Manuel Montoya Ortueta, Zambranako reketea, Braojos frentean hil zen.

Abenduak 13 Jesus de Irañeta, E.A.J.ko kide izandakoaren omenez, mesa antolatu San Migelen; Villarealeko frentean bizia galdu zuen.

Abenduak 15 Pedro Lpz. de Munainek, Legution jasandako zauriengaitik, Gasteizko ospital militarrean bizia galdu zuen.

Abenduak 17 Alejandro Guruceta Aranzabal, Flandes erregimendukoa, apaizgaitegiko ospitale militarrean hil zen.

Abenduak 19 Jose Casado Garrido Gasteizko ospitale militarrean hil zen.

Abenduak 21 Antonio Sastre Carreño, Legution jasandako zauriengaitik, Lukoko ospitale militarrean hil zen.



#### 4. ERRETAGIARDIA LANKIDETZA

Abenduak 25 Alejo Ruiz Prz.-ek, Flandes erregimenduko soldadua, apaizgaitegiko ospitalean bizia galdu zuen.

Frente eta erretaguardiaren koordinaketa oso garrantzitsua zen, gerraren bideragarritasuna eta garaipena zihurtatzeko. Gerrako fronte ezberdinak hornitzeko, atzekaldearen lankidetzaz ezinbesteko bilakatu zen, Araba eta Gasteizko biztanlegoa lan honen muturrean bereiztu zelarik. Hiriburuan hainbat ekimen burutu ziren (harpidetzak, ikuski-zunak, donatiboak...), populazioa mobilizatuaz izanez eta bere partaidetza bilatuz. Hurrengo lerroetan, indar militar eta bolondresak laguntzeko, autoritateak aurrera eramandako ekimen eta neurri ezberdinak azalduko ditugu.

Gasteiz eta Arabako erretagoardian zerbitzu asistentzialak laster eratu ziren. Hasiera batean, autoritateek fronteetako hornidura era espontaneoan antolatu zuten. Uztailearen 26an, Gobernu zibilak batzorde bat antolatu zuen, Jose Luis Oriol buru izanik, frentean zeuden arabar tropak hornitzeko zerbitzuaz arduratzeko eta harpidetzak bideratzeko, eskeintzetan familiek parte hartu behar zutelarik. Lan hau martxan jartzeko, Gasteizko udaletxeak kolektak etxez-etxe eta kale publikoan baimendu zituen, hirian bi talde eratuz eta jasotakoa bi kamionetan bilduz; epe laburrean, zerbitzu hauek probintziako herrietara zabaldu ziren. Hasierako bilketa hauek, Somosierra-Guadarraman zeuden bolondresak hornitzeko izan ziren, Gasteizko apezpikua eginikoa eredu garria izanik, 5000 pesta eskeiniz; Gasteizko udaletxeak hiriko jaiak ospatu ez zituenenez, bertara dedikatu behar zuten aurrekontua tropak hornigaiak eskuratzeko bideratu zuen; Knörr garagardogileak, abuztuaren 26an elikagaiekin zihoan konboi-ean, garagardoaren donazioa desiratua egin zuen, geroago errepikatuko zuen ekintza izanik. Zerbitzu hauekin batera, Madrilgo frentearekin postazerbitzua antolatu zen.

Lan hauetan, altxamenduaren aldeko alderdi ezberdinek parte hartu zuten, bere egoitzatan eskeintzak jasoz. Luis Gevenois-ek, Gasteizko Falangeko burua, Florida kaleko 17. zenbakian zuen egoitzan donaziak egiteko eskakizuna behin baino gehiagotan azpimarratu zuen; ekimen hau berehala erroto zuen, abuztuak 6 goerotik F. E.ko kotxe bat egunero Madrileko frentera enkarguak eramaten baitzuten.

Margarita-reketeak eta F.E.ko emakume-sailak probintzian zehar ere bilketa lan hauetan aritu ziren; honen adibidea Urizarrako margarita taldea dugu, Lola Roa, Aurea Garrido, Pili Aguayo, Emilia Alonso eta Marichu Ugarte era nabarmenean bilketetan parte hartu baitzuten, 1270 pesta eta elikagai ugari lortuz. Maeztuko F.E.ren emakume saila (Sección Femenina) baita ere lan hauetan bereiztu zen.

Arabako erakundetze prozesua jarraituz, zerbitzu hauek zentralizatu nahian, Arabako Gerrarako Biltzar Zentralak egoitza bat egokitu zuen Postas kaleko 25. zenbakian, abuztuaren 13an oparien egoitza

ofiziala eratu zelarik. Irailak 16an Angel Gutierrez Celada, infanteria-komandantea, egoitza honetan bildu ziren opariekin 3 konboyo osatu ostean, Madrilerantz atera zen, zentralizazioaren eraginkortasunaren adierazle izanik. Opari egoitzan baita ere donatiboak jasotzen ziren Gz. de Sarralde bere gestioaz arduratzen zelarik, diruarekin frentean behar ziren hainbat produktu erosiz: kafea, txokolatea, ardo zahatoak, kantineplorak, xaboi pastilak, tabakoa, likoreak, bizarra mozteko aiztoak eta oinarritzko elikagaiak<sup>57</sup>. Abuztuan, Madrilgo frenterantz eta zehazki, Robregordo eta Atienzara egin ziren 5 bidaiak antolatuta zituen<sup>58</sup>. Urriak 15etik aurrera, gobernu militarren aginduz, milizia eta tropeentzako opariak edo eskeintzak Arabako Gerrarako Biltzar Zentralak ezarri zuen oparien egoitza ofizialean egingo ziren soilik, ordurarte organizazio politikoak eskeintzak gestioatzeko izan zuten aukera debekatuz eta ezin eskaerarik eginez; gorpuz militar eta milizia ezberdinen arteko berdintasuna eta koexioa bilatzen zuen; testuinguru honetan, erakunde bakoitzak jasotako eskeintzen zerrenda aurkeztu behar izan zuen. Aurrerantzean, egoitza honek frentetara zihoazen kamioi enkargu guztiak kontrolatu zituen, expedizio pribatuak ez onartuz, Guillermo Sancho opari egoitzaren bulego eta zerbitzuen arduradun bilakatu zelarik.

Frenteetarako hornikuntza lan honetan, emakumeen lana erabakiorra izan zen. Abuztuaren 28an, Gasteizko komandantzia militarra, milizia arabarren artean barneko kamiseten eskaziaz jabetu zen, eta honi aurre egiteko, emakume bolondresen lanean oinarrituko zen tailer bat antolatzea bururatu zitzaion. Hasiera batean, lehengairik eta jorrazteko makinarik ez zuten, populazioari eskatu zitzailearik (59). Irailaren 30an, frentean jasotzen zen hotzaren ondorioz, mantak eskeintzeko lehen iradokizunak plazaratu ziren, Hermandad Alavesako egoitzan utzi zitezkelarik. Urriaren hasieran, negua gertaratu ala, jertse, tapaki eta kapoteen eskaria orokortzen hasi zen, Madril eta Gorbeialdeko frentean hotza sentitzen hasi baitzen. Urriaren 7an Arabako Gerrarako Biltzar Zentralak artile enkargu handia jaso zuen, milizia eta ejerzitoarentzako arropak jorrazteko, emakumeen lan bolondresa berriro eskatuz (60). Kapoteak egitean, Irazu biltegiaren lana azpimarratzekoa izan zen, lehengai soilik kobratzen baitzuen, konfekzioa monjen eskuetan utziz eta erligiosei lana ordaintzeaz arduratuz. Azaroan Gasteizko Oblata, Betoño eta R.R. M.M. (reverendas madres) Brigidas-eko komentua egin behar honetan bete-betean sartu ziren. Autoritateek lanak koordinatzeko eta errezteko, Gasteizko hirian zehar josteko tailerrak zabaldu zituzten;

(57) Babarrunak, txitxirioak, arrosa, tomatea, piperrak...

(58) Erakunde honek abenduaren 1ean jada 115000 pesta jasotak zituen.

(59) Autoritateek tramiteak ere egin zituzten jorraz makinak erosteko, Rafael Santaolalla, Gasteizko alkateak, Singer etxe komertzialari hainbat makina erosi baitzizkion azaroaren 10an.

(60) Emakumeek autoritateei artilea eskatu eta bere etxeetan arropak lantzen zituzten.

adibide gisa, urriaren 15an Postas kaleko 25. zenbakian, oparien egoitza aurrean, tailer bat inauguratu zuten. Lanbide eta Arte eskolan eta Florida talde eskolarrean ere tailerrak ireki ziren. Abenduaren 1ean, España enparantzako intendentzia militarra (nº30), soldaduentzako arropak egiteko tailer batean egokitu zen. Lehengaiak erosteko eta tailerren mantenu mekanikoaz arduratzeko, partikularren eskeintzak erabakigarriak izan ziren, Felix Alfarak egin zuena adierazgarria izanik, 5000 pesta tapaki eta kapoteak erosteko luzatu baitzituen.

Beste esparru batean ere emakumeen laguntza nahitaezko suertatu zen. Frenteetan korrespondentzia ezinbesteko arman bilakatu zen, soldadu eta bolondresen morala tinkotzen baitzuen, autoritateek emakumeen artean praktika hau bultzatu zutelarik. Testuinguru honetan, ama bitxiak funtzio garrantzitsua betearazi zuten eta frentean komunikaziorik gabe zeudenentzat erabakigarriak izan ziren (61). Bere funtzioa gerran ematen ziren postasun eta bizikerak trasmittitzeko, eta gutun harremanak egiteko neska-lagun bat izatea zen; baita ere, opariak egiten zituen pertsona bat aurkitzeko metodo egokian bilakatu zen, soldadua apadrinatuz. Arabako egoera urriak aldera gori-gori jarri zenean, gutun hauetan arrenkura adierazpenak debekatu ziren, gutun hauen gainean ere zentsura emanez. Gerra osoan zehar, P.A.-ek militar eta milizien amabitxi eskaerak jaso zituen, bere orrialdetan arrunta izanez. Honi esker arabar tropen kokagunea jakitea eta osatzea posible egin zaigu.

Aipatutako neguaren ondorioei aurre egiteko, Hotzaren aurkako gurutzadaren ekimenak garrantzi handia izan zuen, hurrengo lerroetan bere funtza azalduko dugalarik.

Urriaren 29an Gasteizko udaletxera Hotzaren aurkako gurutzadaren zigiluak iritsi ziren, 10 zentimoko berrehun mila zigilu eskuratuz. Ekimen hau, Burgosen bultzatu zen lehenengo aldiz eta lortu zuen ospea kontutan izanda, Espainia nazionalako beste probintziatara zabaldu zen. Lortzen zen dirua, frenteetan zeuden tropak eta bolondresak arropaz hornitzeko erabili zen, negua gerturatzen ari baitzen eta etxetik kanpo aurre egin behar zioten hotzari.

Zigilu hauek Udaleko Aurrezki Kutxan nahiz Probintzian lortu zitezkeen, erakunde hauek gurutzada hau zabaltzearen arduradunak izanez, milizia bolondresen laguntza jaso zezaketelarik, azken finean,

(61) F.U.ren esanetan ... “Eran algunas muchachas o mujeres que se ofrecían para escribir y nosotros aceptábamos gustosos cartearnos; también te mandaban alguna vez algún paquete de comida. Se hacía con el fin de disponer de vez en cuando de algún regalo o comida extra y a su vez obtener compañía y distracción. Solíamos disponer de alguna dirección y los que no tenían, optaban por entablar relación con alguna de ellas. ¿Con que frecuencia solían tener relación por carta? Yo no sé si tenía dos o tres. Apenas teníamos tiempo para andar escribiendo allí; nuestra batería nos movíamos constantemente. La infantería sí que escribía más, pues tenían una posición semi-fija en las trincheras, y una dirección constatable” ...

neurri honen onuradunak baitziren. Honako argibideak jaso zituzten hotzaren aurkako kanpainia eraginkorra izan zedin, ekonomiaren aspektu edo eragiketa guztietan barneratu zelarik.

Erakunde publikoetako erabilera

- Biltzar Ekonomikoarekin egiten zen edozein eragiketetan (ordainketa, ateraketa...), eskabidean bai originalean bai bikoiztuan, 10 zentimoko zigilu bat ezarri behar zen.
- Udaletxeko egoitza publikoetan bideratzen ziren instantziak, eskabideak eta ordain-agiriak, 10 ztmko zigilua eraman behar zuten.
- Gobernu zibilera bideratzen ziren eskakizun guztiak, azaroak 5etik aurrera, 10 ztmo.-tako zigilu batez hornitu behar zituzten.
- Hostalaritzako etxe edo egoitza guztiek (fondak, hotelak, arrotz-etxeak...) autoritateei luzatu behar zieten bidaiariaren zerrendatan, 10 ztmo-ko zigilu bat ezarri behar zuten.
- Funtzionario publikoen nominak zigilutaz hornitu behar ziren.

Erabilera pribatua

- Jabe, industria-gizon eta merkatariari beraien ordainagiri eta zoragiritan, bolondreski zigiluak ezartzeko iradokitu zitzairen.
- Hotel, kafe, jatetxe eta tabernetan, pertsona bakoitzeko kontsumoagatik, zigilu bat ezarri behar zen; salmenta 2pts. baino handiagoa bazen, kontuaren %10 zigiluetan gastatu behar zenuen. Egoitzak, ordainagiririk ez bazuen luzatzen, zigiluak banketxe edo aurrezki kutxak luzatutako talonarioetan ezarri behar ziren.
- Estankoetan, korrespondentzia, tabakoa... erosketagaitik, aurreko proportzio bera errespetatu beharko zen.
- Zinema eta antzerkietan, 75 ztm.ko sarrera bakoitzeko 10 ztmo.-ko zigilua erosi behar zen; gutxiago balio zutenak ( behartsu eta mutiko koxkorrenak) ez zuten ordaindu beharrik.

Fnz. Ichaso gobernadore zibilaren hitzetan, zigiluen erabilera pribatua bolondresa zen, baina moralki ahal zuten guztiak erabiltzeko derrigortuak zeuden; soldaduak bere erabileraz salbuetsiak zeuden, azaroaren 29an, Gasteizko kafeetan honen inguruan istiluak sortu zirelarik.

Edozein zerbitzu edo erosketa baten truke luzatutako zigiluak, beste batean erabiliak ez izateko, “mata-seilo”-z edo koloreko lapitzarekin markatuak izan behar ziren.

Garaiko egunkarietan honelako iragarkiak aurkitu genituen, populazioa jakinean jartzeko: “...Alaveses, en las compras que efectueis y en los cobros que realiceis, exigid uno o varios sellos de 10 ctmos. de la cruzada contra el frío...” Arabako Nagusien Federazioak ere, hiriko industria gizon eta komertzianteen artean, kanpainaren informazioa eta arauak zabaldu zituen.

Plater bakarraren ekimenak, gerraren garapenean garrantzi handia izan zuen. Espainia nazionalan 1936ko urriaren amaieran gorpuztu zen, azaroaren 15an jada martxan jarri zelarik, hilabeteke lehen eta hamabostgarren egunetan plater bakarraren eguna inposatu. Egun hauetan, bazkari bakoitza plater bakar batez osatua egon behar zen, egun arrunt bateko dietaren ezberdintasuna diruan neurtu eta donatua izan behar zelarik. Plater bakarreko politika, partikularrak betetzeaz gain, erakunde publikoak (asistentzia sozialeko jantokiak, umezurtegi, kartzela (62)...) eta jendeartera zabaldua zeuden egoitzak ere bete behar zuten. Hotelak eta jatetxeak donatu behar zuten diru kopurua, alkate eta gobernadore zibilarekin adostu behar zuten, egunean bildutakoaren %25 baino gutxiago ezin izanez; diru sarrera hauek justifikatzeko, egun hoietan izandako bezero eta zerbitzatutako janariaren kopurua, sin egin behar zuten, hurrengo 3 egunetan Gasteizko bilketa batzordearengana abiatuz (milizia hiritarren egoitza) eta ordainaraziz; egoitza hauetan (taberna eta hoteletan), sardeskako askariak debekatu ziren.

Emakumeen taldeak diruaren bilketaz arduratuko ziren, hilabetearen 2an eta 16an etxez-etxe eta pisuz-pisu abiatuko zirelarik, eskeintzaileei ordain-agiria luzatuz eta beraien ingurraztietan jasoz. Bilketa lan hauek Gasteizen, hiruzpalau egunetan egiten ziren.

Diru eskeintza hauek, Espainiako Bankuan zegoen Plater Bakarreko kontuan sartu behar ziren, Espainia nazionalako gobernu orokorraren esku egonez; kanpainian lortzen zen dirua, teorikoki, langabetu, umezurtz eta agure babesgabei laguntzeko helburua zeukan eta eskaziaren adierazlea ez zela zioten uneoro.

Azaroaren 10an Diputazioaren ardurapean, komisio eta subkomisio probintzialak eratu ziren, politika honen ezarpena koordinatzeko eta gainbegiratzeko; aurreko egunetan, leku publikoetan (tabernak, kafeak, jatetxe, kasino, erakusleho...) nahiz egunkari eta irratietan neurria zabaldu zen, propaganda bizia eginez. Antonio Prz. Ormazabal, Gasteizko gotzainaren adierazpenak, ildo honetatik zihoazen: ...las familias que pierden el padre de familia en el frente, necesitan sustento...azaroaren azkenaldera egin zituelarik, abenduaren 1ean egingo zen saioaldian eragina bilatuz. Askotan, erligio kristauak ezartzen zituen barauladiekin konparatzen zen, izaera kristaua lantzeko balioa izaten zuen ekimena izanez.

Neurri hauek errespetatu ez zutenek zerrenda beltzetan sartu ziren, zigorrak eta izunak jasoz. Lehen bilketaren esperientzia ikusita, behin baino gehiagotan etxe batzuetan atera ez zuten irekitzen; biltzaileek ezin zuten partikularren menpe egon, hauek Gasteizko bilketa batzor-

(62) Presoen bazkaria plater bakar batez osatua zegoen, kantitatean murrizpena jasan zutelarik, espetxeko diziplina biltzarren aginduz.

dean eskeintza egin beharko zutelarik, zerrenda beltzetan agertu nahi ez bazuten.

Autoritateak plater bakarraren politikaren erakusle izateko, azaroaren 15an hoteletako bazkari publikoetara joan ziren, Gasteizko gizar-teari jokaera berdina izateko eskatuz. Araban Plater bakarraren lehen egunean, 30.000 pesta lortu ziren, 0.31ztmo. biztanleko, iparraldeko probintzia nazionalen indizerik altuena lortuz (Gipuzkoa 0.30 ztm. Burgos 0.29 ztm. Errioxa 0.15 ztm. Nafarroa 0.14 ztm.)

Azaroaren 12an, P.A.seko orrietan, Gasteiz Irratiko saioa erreproduzitu, plater bakarreko egunean landu zitezken bazkari ezberdinak plazaratu ziren, honako hauek izanez: Burgos eran eginiko babarrunak, patata onduak, kuaresmako garbantsuak...etb, plater bakoitza 4 pestatan preziatu zutelarik.

Plater Bakarraren ekimena, Alemanian martxan jarritako proiektuaren kopia izan zela leporatu zitzaion, P.A.eko orrietan, urriaren 12an jada, honi buruzko adierazpenak aurkitu ditugularik. Nazional-Sozialista alemaniarrek, 1936ko Neguko Sorospen kanpaina burutu zutenean, rasionamendu nazionala ezarri zuten, janarietan plater bakarra inposatu eta aurreztutakoa dirutan edo espeziean jasoz, lortutakoa ongitzara zuzenduko zelarik. Azken finean, bi ekimen berdintsuen aurrean aurkitzen gara, salbuespena gerra testuingurua izanik.

Salaketa honi aurre egiteko eta espainiar izaera azpimarratzeko, Luis Hernando de Larramendik, P.A.eko orrietan, hurrengo justifikapena plazaratu zuen: plater bakarraren ekimena, espainiar ohituran bete-betean errotua zegoela zihoen, Cervantes-en “Coloquios de los perros Cipión y Berganza” lanean agerian gelditu baitzen aspaldi; bertan, Gaztela korteko menpekoak, hilabetean behin ura eta ogiz elikatu behar ziren, egun arrunt bateko elikaduraren diferentzia erregeari eskeini behar zitzaizolarik.

Ekimen honetan, gizartearen ezberdintasunak agerian gelditu ziren, maiz langile anitzen dieta plater bakarra izaten baitzen, dirua bere gordakinetatik atera behar zutelarik ekimen hau ordaintzeko.

Arabako Biltzar Ekonomikoak probintzian eman ziren eragiketa ekonomiko eta harpidetza nazional guzti hauek kontrolatu eta kudeatu zituen. Irailak 5tik aurrera, milizia bolondresen senideei eskeintzen zitzaion diru-laguntzaz arduratu zen. Kasu bakoitza zehaztasunez aztertu zuen, ea familiek dirua edo laguntza merezi zuten ala ez jakiteko; behin zerrenda aztertuta, diputazioari diru-laguntzak ematea eskatu zion, Biltzar honek donatiboak ez ezik, ez baitzituen sarrera fiskalik, irailaren 11an diputazioak onartu zuelarik (63).

(63) Ejerzito nazionalaren barnean sartzen ziren nekazari edo jornalari bolondresen senideek, subsidioa jasoko zutela adierazi zen, milizia hauei egun bakoitzeko 3pts ordaintzen zitzaizolarik; Arabako diputazioa gastu honetat arduratu zen, abuztuaren 7an bolondres senideen zerrenda diputazioan argitaratuz

Irailaren 30an Vidal Sanz Echevarria erakunde honetaz arduratu zen. Azaroaren 25ean probintziako udaletxeek harpidetza nazionalera eskeini zuten diru kopurua aitortu behar izan zuten; honen arabera, abenduaren 1ean eginiko zenbaketan, Araban antolatutako harpidetza ezberdinen kopurua argitaratu zen, hauek garrantzitsuenak deritzogularik:

- Oparien egoitzan 115.000
- Estibalizko santutegian odol ospitalea osatzeko 4474
- Gasteizko guarnizioei ikurrinak oparitzeko 8722
- Arabako probintziak Madrilera eramane behar zuen aldea finantziatzeko 5035
- Madrilera ogia eramateko 14000
- Alava hegazkina 385920
- Milizia eta bere senideen alde 977897
- Urre kopurua 60 kg.

Guztira, Arabako probintziak ejerzito nazionalaren eskuetan 4314805 pesta inguru jarri zituen, behar ezberdinei aurre egiteko.

## BIBLIOGRAFIA

- Jose Luis DE LA GRANJA; Manuel TUÑÓN DE LARA; C. GARITONAINDIA: *La guerra civil en el País Vasco: 50 años después*, U.P.V., Leioa, 1987
- Inaki EGANA: *Gerra Zibila Euskal Herrian*, Aralar liburuak, Andoain, 1999.
- Javier UGARTE TELLERIA: *La nueva Covadonga insurgente: orígenes sociales y culturales de la sublevación de Navarra y el País Vasco*, Biblioteca Nueva, Madrid, 1998.
- J.M. AGUIRREGABIRIA; G. TABERNILLA: *El Frente de Álava. De la sublevación militar a vísperas de la batalla de Villareal*, Ediciones Beta III. Milenio, Bilbao, 2006.
- K. SAN SEBASTIAN (dir): *La guerra civil en Euzkadi, eusko gudariak*, Deia, Bilbao, 1987.
- Ceferino DE JEMEIN Y LANBARRI: *El nacionalismo vasco y la sublevación militar en Euzkadi: 18 de julio de 1936; Euzkadi en guerra (1936-1937)*, Ediciones Alberdi, Bilbao, 1986.
- Txema FLORES: *Araba gerran*, 1936, Arabera, Gastezi, 2002.
- Emilio ENCISO VIANA: *Villareal: su cerco y defensa*, Editorial Social Católica, Vitoria, 1937.

---

Bolondresei eskeini zitzaizen diru laguntzen inguruan, egin ditugun elkarrizketetan ezjakintasuna da nagusi.

- Vicente SAN MILLAN MARTIN: *Villareal: defensa y contraataque gloriosos*, Provincial de Asociaciones de Alava, Vitoria, 1965.
- Rafael CASAS DE LA VEGA: *Las milicias nacionales*, Editorial Nacional, Madrid, 1977.
- Jose PEREZ AGOTE; Emilio LATORRE TIMONEDA: *Memorial de la Cruz Roja: tres años de guerra, 1936-1939*, Vitoria, 1939.